

**EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO ANTOLAMENDU ETA
FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA****AURKIBIDEA****ZIOEN AZALPENA**

I. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa eta euskal sektore publikoaren integrazio eta dimentsionamendua.

I. kapitulua.- Xedapen orokorrak.

1. artikulua.- Xedea.
2. artikulua.- Helburuak.
3. artikulua.- Aplikazio-eremua.
4. artikulua.- Euskal sektore publikoaren aplikazioa, aintzatespena eta partaide izatea.
5. artikulua.- Jarduteko printzipioak.
6. artikulua.- Euskal sektore publikoa sortzeko eta eraldatzeko printzipioak.
7. artikulua.- Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakunde Arteko Batzordea.

II. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde-antolamendua.

I. kapitulua.- Erakunde-motak eta erakundeen sailkapena.

8. artikulua.- Administrazio Orokorra eta Instituzionala.
9. artikulua.- Sektore publikoari atxikitako edo lotutako erakunde instrumentalak.
10. artikulua.- Administrazio independentea.

II. kapitulua.- Administrazio Orokor eta Instituzionalaren egitura eta antolamendua.

11. artikulua.- Antolamendu- eta funtzionamendu-printzipioak.
12. artikulua.- Administrazio Orokorra.
13. artikulua.- Goi-organoak eta goi-kargudunak.
14. artikulua.- Zuzendaritza-organoak.
15. artikulua.- Administrazio Orokorreko sailak.
16. artikulua.- Egitura organiko eta funtzionalak.
17. artikulua.- Euskadik kanpoan duen administrazioa.
18. artikulua.- Kide anitzeko organoak.
19. artikulua.- Herritarrek eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorak.
20. artikulua.- Administrazio-organoak.
21. artikulua.- Administrazio-unitateak.

III. kapitulua.- Eskumena.

22. artikulua.- Printzipio orokorrak.
23. artikulua.- Deskontzentrazioa.

24. artikulua.- Zerbitzuko jarraibide, zirkular eta aginduak.
25. artikulua.- Eskuordetza ematea.
26. artikulua.- Sinadura eskuordetzan ematea.
27. artikulua.- Kargudunak ordeztea.
28. artikulua.- Goragokoak eskumena bereganatzea.
29. artikulua.- Kudeaketa-gomendio intrasubjektiboa.
30. artikulua.- Kudeaketa bateratuko zentroak.

IV. kapitulua.- Administrazioen arteko lankidetzaren eta koordinazioa.

31. artikulua.- Araubide orokorra.
32. artikulua.- Lankidetzaren ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa.
33. artikulua.- Lankidetzaren hitzarmenak.
34. artikulua.- Jarduera-plan bateratuak.
35. artikulua.- Administrazioek funtzioak elkarri eskuordetzan ematea.
36. artikulua.- Eginkizunen eskuordetze intersubjektiboa.
37. artikulua.- Kudeaketa-gomendio intersubjektiboa.
38. artikulua.- Beste erakunde batzuei gomendio uztea.

III. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaera.

I. kapitulua.- Erakundearen araubide juridikoa.

39. artikulua.- Organismo autonomoak.
40. artikulua.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.
41. artikulua.- Kapital-sozietateak.
42. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioak.
43. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.

II. kapitulua.- Eratzeko, eraldatzeko eta azkentzeko araubidea.

44. artikulua.- Erakundearen eratzeko prozedura orokorra.
45. artikulua.- Administrazio Instituzionaleko erakundearen eratzea, eraldatzea eta azkentzea.
46. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kapital-sozietatearen eratzea, eraldatzea eta azkentzea.
47. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioaren eratzea, eraldatzea eta azkentzea.
48. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoaren eratzea, eraldatzea eta azkentzea.

IV. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendua eta eraldaketa.

I. kapitulua.- Antolamendua arautzeko eta aldatzeko inguruabarrak.

49. artikulua.- Araubide juridikoa.
50. artikulua.- Beste erakunde batzuetan parte hartzea.
51. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak ez diren erakundearen finantziaketa.

II. kapitulua.- Erakundeen ebaluazioa.

52. artikulua.- Ebaluazio-erregimena.

53. artikulua.- Ebaluatzeko prozedura.

III. kapitulua.- Erakundeak berregituratzea eta azkentzea.

54. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa berregituratzea.

55. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartzea ez dakarren partaidetza.

56. artikulua.- Azkentzea eta sektore publikotik kanpo geratzea.

57. artikulua.- Enpresa-kontzentrazioko sozietateak.

IV. kapitulua.- Administrazio Orokorrekiko harremanak.

58. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundeen Erregistroa.

59. artikulua.- Atxikipena eta gidalerroak.

60. artikulua.- Egintzak eta errekurtsioak.

61. artikulua.- Gobernu-organoetako ordezkariak.

62. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak merkataritza-sozietate publikoetako administrazio-kontseilueterako izendatzen dituen kideei aplikatu beharreko erantzukizun-erregimena.

63. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sozietate publikoen atxikipena eta babesa.

V. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamendua, herritarren zerbitzura jarduteko.

I. kapitulua.- Xedapen orokorrak.

64. artikulua.- Funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioak.

65. artikulua.- Herritarren eskubideak eta betebeharrak.

II. kapitulua.- Kudeaketa- eta ebaluazio-sistemak.

66. artikulua.- Kudeaketa publiko aurreratuko sistemak ezartzea.

67. artikulua.- Antolamendu-unitateen kudeaketaren ebaluazioa.

III. kapitulua.- Administrazio Elektronikoa eta herritarrentzako arreta.

68. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Elektronikoa.

69. artikulua.- Administrazio Elektronikoen printzipioak.

70. artikulua.- Administrazio Elektronikoen arloko eskubideak.

71. artikulua.- Administrazio Elektronikoko ereduak Euskal Autonomia Erkidegoan izango duen garapena.

72. artikulua.- Parte-hartze publikoa bitarteko elektronikoen bidez gauzatzea.

73. artikulua.- Prozedura administratiboak sinplifikatzea, zerbitzu eta kanal elektronikoen bidez.

74. artikulua.- Administrazio Elektronikoa bultzatzeko lankidetzak-tresnak.

75. artikulua.- Erakunde pribatuen eta publikoen terminal eta webguneen bidezko irisgarritasuna.

76. artikulua.- Herritarrekiko interakziorako kanal anitzeko sistema.

IV. kapitulua.- Sektore publikoaren funtzionamenduko hizkuntzak.

- 77. artikulua.- Zerbitzu-, harreman- eta lan-hizkuntzak.
- 78. artikulua.- Xedapenetako eta adierazpenetako hizkuntza.
- 79. artikulua.- Espedienteetako hizkuntza.
- 80. artikulua.- Erregistro publikoetako hizkuntza.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria.- Lege honek arautzen duena lurralde historikoetako foru-administrazioei eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikatzea.

Bigarren xedapen gehigarria.- Lege honek arautzen duena Eusko Legebiltzarrari eta haren mendeko erakundeei aplikatzea.

XEDAPEN IRAGANKORRA.- Lege honek arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan dagoeneko badauden fundazioei aplikatzea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa.- Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina aldatzea.

Azken xedapenetako bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako hirugarrena.- Lege hau indarrean sartzea.

EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA.

Lege honek sektore publikoa jorratzen du, sektore hori zentzu zabalean hartuta; eta helburutzat du sektore horri berez lotuta dauden beharrian guztiak arautzea, horrela erreferentziazko testu bat izan dezagun Euskal Autonomia Erkidegoko egitura publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari koherentzia emateko, bai eta sektore publiko orokorrak eta autonomia-erkidego honetako eremu instituzionaletan jardun diren sektore publikoen multzoak duten behin-behineko loturari koherentzia emateko ere.

Helburua ez da dauden arau guztiak testu bakar batean kodifikatzea. Aitzitik, erreferentziazko lege baten aldeko hautu sistematikoa egin da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren antolamendua ezartzen duten arauen multzoa antolatzeko. Horren bidez, lehenengo, gai berari buruz dagoen legeria zabalak eragiten dituen disfuntzioak eta kontraesanak murriztea da xedea. Eta, bigarren, eztabaida erabakitzaila sustatu nahi da Euskadin, *res publica* delakoari buruz herritarrek duten pertzepzioaren hobekuntzaren gainean; haren balioa handitzeko eta, antolamenduaren ikuspegi zorrotzetik abiatuz, administrazio-kultura berria sortzen hasteko, garai hauek eskatzen dituzten paradigma berriak oinarri hartuta; paradigma hauek, besteak beste: efikazia eta efizientzia, antolamendua eta gobernantza, eta gardentasuna eta herritarrek gai publikoetan duten parte-hartzea.

Lege berri hau bat dator Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. paragrafoetan jasotzen diren eskumen eskusiboekin, betiere Autonomia Estatutuko beste arau batzuek eragiten ez dioten neurrian; izan ere, honako eskumen hauek arautzen baititu Estatutuak: Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernu-erakundearen antolamendua, araubidea eta jarduera; zuzenbide substantiboaren espezialitateetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendutik eratortzen diren administrazio-prozeduraren arauak, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren sektore publikoa.

I. tituluak legearen xedea, helburuak eta aplikazio-eremua zehazten ditu, oro har; funtsean Autonomia Erkidegoari begira egiten du hori, baina ahaztu gabe legearen helburuen artean dagoela euskal administrazio publikoek eta haien inguru instituzional eta instrumental atxikiek osatzen duten multzoak sektore publikoarekin izan behar duen eta duen lotura argia.

Beraz, sektore publiko autonomikoaz gain kontuan hartzen ditu foru- eta toki-mailako sektore publikoak –eta, behar denean, baita estatu-mailakoa ere–. Alde

batetik, behar bezala neurtu ahal izateko publikoa den guztiaren sorrera eta eraldaketaren prozesua; bestetik, publikoa denaren efikazia eta efizientziaren ezinbesteko ebaluazioa egiteko, eta, azkenik, euskal sektore publiko osoa arrazionalizatu eta dimentsionatzeko erabakiak hartu ahal izateko.

II. tituluak zorrotz arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendua. Lehenik eta behin, erakunde-motak definitzen ditu eta erakunde horien sailkapena egiten du, bere horretan jarraitu baitute orain indargabetuta dagoen ogasun nagusiaren antolaraueti buruzko legeak arautu zituenetik. Ondoren, hainbat kontzeptu eta prozesu eguneratzen ditu, horren beharra dago-eta; esate baterako, administrazio independentea delakoa definitzen du, baita gure egitura organiko eta funtzional guztiak egituratzea ahalbidetzen duten prozesuak ere. Eta, azkenik, horiek guztiak era logikoan sartzen ditu gure sektore publikoaren araubide juridikoarentzat egokientzat jotzen den lege-garapena osatzen duten arauetan. Bi helburu hauekin egiten da hori dena: gure eskumenak erabili ahal izatea eta hainbat elementu tekniko zehaztea administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa ahalbidetzeko.

III. tituluak zehatzago garatzen ditu Administrazio Publikoa pertsonifikatzen duten figura juridikoak. Eta, horrez gain, kasuak definitzen ditu, berrikuntza-asmu bakarrarekin: eskumenen ikuspegitik zehaztu daitekeen molde bakoitzaren ezaugarriak eta elementuak behar bezala zehaztea; izan ere ezin baita molde berririk definitu ez eta indarrean dagoen legerian dagoen funtsezko elementurik aldatu ere.

Era berean, erakunde-mota edo pertsonifikazio juridiko bakoitza sortu, eraldatu eta azkentzeko prozesuak arautzen ditu, kontuan hartuta tasatuak izaten direla prozesu gehienak eta justifikazio tekniko zorrotza eta prozedura arin eta eraginkorrak behar izaten dituztela. Bestalde, kontrol politikoa egiteko elementuak ezar dakizkieke denei, eta kontrol horiek ebaluazio-prozesu onak izan behar dituzte alboan. Ebaluazio-prozesu horiek, gainera, administrazio-jardunbidean ezarri eta alditan banatu behar dira.

IV. titulua arduratzen da, hain zuzen ere, sektore publikoaren antolamendua eta eraldaketa ezartzeaz, Euskal Autonomia Erkidegoko instantzia komunak ikuspegi zorrotzetik abiatuz. Antolamenduari buruz une bakoitzean hartzen den erabakiaren arabera zer jarduera egin daitekeen adierazten du, alde batera utzi gabe edo kontuan hartuta maila instituzional komunari dagokion ikuskera hori beharrezkoa dela eta ez dela nahastu behar beste maila instituzional batzuetan erabakiak hartzeko erabiltzen diren arauekin. Bukatzeko, beste arau batzuk aipatzen ditu: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bere sektore publiko osatzen duten erakundeetako bakoitzarekin izan behar dituen harremanetan aplikatu beharreko arauak.

V. tituluak ikuspegi klasiko batetik biltzen ditu sektore publikoaren funtzionamendu-arauak. Bi parametro nagusi ezartzen dizkie kudeaketaren ebaluazioa, herritarren atentzioa, Administrazio Elektronikoa delakoaren erreminten bidez herritarrek izaten duten parte-hartzea eta gure administrazio-prozesuetan zeresan berezia duen eta erabat presente dagoen hizkuntzen gai espezifikoaren arautegia ebaluatzeko prozesu nagusien helburu eta arauai: efikazia eta efizientzia.

Esan bezala, ikuspegi klasikoa da; eta, hain zuzen ere ikuspegi hori egonkorra delako, gainontzeko euskal administrazioen eremuan aplikatu nahi da, jarduteko printzipio komunei eta herritarrek euskal botere publikoekiko harremanetan dituzten eskubide eta betebeharrak orokorreki dagokienez. Hala egin nahi da, kontuan hartuta lege honen hurbilekoak diren beste lege-arauetara jo beharko dela aurrera begira izango dugun euskal gobernantzaren konpromiso politikoa osatzen duten helburu eta arau zehatzak finkatzeko, hori proposatu baita Eusko Legebiltzarrean.

I. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa eta euskal sektore publikoaren integrazio eta dimentsionamendua.

I. kapitulua.- Xedapen orokorrak.

1. artikulua.- Xedea.

1.- Hauxe da lege honen xedea: Administrazio Publikoaren antolamendu eta funtzionamendua arautzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruan dauden erakunde guztiena ere. Horretarako, honako hau hartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotzat: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren Administrazio Instituzionalak eta hor sartuta dauden erakunde instrumentalek osatzen duten multzoa.

2.- Era berean, lege honen xedea da Euskal Sektore Publikoa –zeinean Euskal Autonomia Erkidegoko sektorea sartzen baita– osatzen duten elementuak ezartzea, eta haren dimentsionamenduari eta eraldaketari aplikatu beharreko arauak eta printzipio komunak ezartzea, bai eta, zerbitzu publikoa eta herritarrekin harremanean egoteko zerbitzua den aldetik, haren funtzionamenduari aplikatu beharrekoak ere.

2. artikulua.- Helburuak.

Antolamenduari dagokionez, lege honek helburu hauek lortu nahi ditu:

a) Arau eta irizpideak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egitura organikoa eta funtzionala egituratzen duten prozesuak garatzeko.

b) Definitzea pertsonifikazio juridiko publiko edo pribatuko zer erakundek osatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa, Administrazio Orokorraz aparte; arautzea zer betekizun bete behar diren haiek eratzeko edo lehendik ere egon dauden beste erakunde batzuetan parte hartzeko, eta ezartzea zer erlazio-mekanismo izan behar duten Administrazio Orokorrekin, zeinaren menpe baitaude eta zeinari atxikitzen baitzaizkio.

c) Definitzea zerk justifikatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek beste erakunde batzuetan parte hartzea, baldin eta, lege honetan ezarritako irizpideen arabera, beste erakunde horiek ez badira sektore publiko horretako kide bilakatzen parte-hartze horren ondorioz.

d) Irizpideak ezartzea aztertzeko ea badagoen eraginkortasun-gabezia, gainjartze eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren bikoiztasunik beste sektore publikoekin, bereziki sektore publiko osoa eta estatuko sektore publikoa kontuan hartuz. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten sektore publiko guztiekin koherentziaz jokatzeko hobekuntzak sustatzeko antolamendu- eta funtzionamendu-baldintzak sortuko dira.

3. artikulua.- Aplikazio-eremua.

1.- I. tituluaren II. kapituluaren printzipioak euskal sektore publiko osoan aplikatzekoak dira, lege honetan ezarritakoren arabera.

2.- Lege honen gainerako edukiak, batez ere antolamenduari buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen dutenei aplikatzekoak dira, eta euskal sektore publikoko beste subjektu batzuei ere aplikatuko zaie Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera eta haien erakundeen arauen arabera.

3.- Lege honetan dauden antolamendu hutseko aurreikuspenak honako hauei aplikatuko zaizkie, kasu bakoitzean ezartzen den moduan:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorriari.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organismo autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoei.

c) Zuzeneko edo zeharkako partaide gisa erakunde horiek dauzkaten erakunde, sozietate eta pertsona juridikoei.

d) Gainerako erakunde publikoei, hala xedaturik egonez gero haiek sortzeko arauan edo lege honetan bertan.

II. kapitulua.- Euskal sektore publikoa.

4. artikulua.- Euskal sektore publikoaren aplikazioa, aintzatespena eta partaide izatea.

1.- Lege honetan, euskal sektore publikoa izenez ezagutzen den multzoa aintzatesten da, eta euskal sektore publikotzat jotzen da euskal administrazio publiko guztietako sektore publikoen multzoa. Honako hauek sartzen dira multzo horretan, bakoitza bere erakunde instrumentalekin eta mendean eta atxikita dituen gainerako erakunde instrumentalekin: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak.

2.- Honako hauek ere euskal sektore publikoan sartzen dira: atxikimendu-erregimenik ez duten nortasun juridiko independenteko erakunde publikoak, hala nola Lan Harremanen Kontseilua eta Euskal Kontseilu Ekonomikoa eta Gizarte Kontseilua, eta haien sorrera-arauan berariaz sektore publikotzat jotzen diren beste erakunde guztiak, bai eta Euskal Herriko Unibertsitatea ere.

3.- Halaber, euskal sektore publikokoak dira edozein izaera juridiko edo pertsonifikazio duten entitate guztiak, baldin eta euskal sektore publikoaren barruko sektore publiko batekoak izateko lege-baldintzak ez bete arren sektore publikoko entitatearen batekin batera jartzen direnean hartzen duten posizioaren eraginez bi entitateetako edozeini egotz balegokioke sektore publikokoa izatea.

4.- Nolanahi ere, euskal sektore publikoaren barruan daude honako ezaugarrietako bat daukaten erakunde guztiak:

a) Erakundeko lehendakari edo kide bakarreko ordezkari-tza-organo gorenaren kargua betetzen duenak kargu politikoren bat izatea aurreko zeregin horren ondorioz.

b) Artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo erakundeek izendatzea, zuzenean, entitateko lehendakaria edo kide bakarreko ordezkari-tza-organo gorena.

c) Administrazioaile bakarraren sistema edukita, artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo erakundeek izendatzea lehendakaria edo kide bakarreko ordezkari-tza-organo gorena.

d) Kide anitzeko gobernu- edo administrazio-organoa edukita, artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo erakundeek izendatzea kide horietako gehienak.

e) Artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo erakundeen aurrekontuetatik etortzea erakundeen kapital edo ondarearen zati handiena, eta haiek ematea erakundeari.

Daukaten forma eta izaera juridikoaren arabera dagokien araubide juridikoaren mende daude entitate horiek, bai eta sektore publikokoak diren aldetik aplikatzekoak zaizkien arauen mende ere.

5.- Lege honetan aipatutako gaiak osatzen duten legezkotasun-blokearen mende egon beharko dute artikulu honetan definitutako egoeran dauden entitate guztiek, betiere entitate horiek sortzeko arauak, estatutuek, antolamendu- eta funtzionamendu-arauek edo haien partaide diren administrazioekin egindako hitzarmenak ezartzen duten moduan; izan ere entitate horien partaide diren administrazio publikoetatik eratortzen baita lege-bloke hori.

5. artikulua.- Jarduteko printzipioak.

1.- Eremu instituzional bakoitzaren antolamendua eta funtzionamendua zuzentzen duten printzipioei kalterik eragin gabe, euskal sektore publikoko subjektu guztiek jardun behar dute printzipio orokor hauen arabera:

a) Zerbitzu-printzipioa. Horren arabera, sektore publikoko organismo edo erakunde guztien helburua da objektibotasunez zerbitzatzea interes orokorrak, eta, funtzioak betetzean, zerbitzu hobeak ematea herritarrei.

b) Legezkotasun-printzipioa. Printzipio horrek agintzen du nola jardun behar duten sektore publikoko administrazio publiko eta erakundeek, eta, bereziki, nola bete behar dituzten ordenamendu juridikoak ezartzen duen banaketaren arabera gomendio uzten zaizkien funtzioak.

c) Koherentzia-printzipioa. Horren arabera, euskal administrazio publikoek sistema publiko oso bat sustatzen dute, alferreko bikoizketa eta errepikapenak saihestu behar dituen sektore publikoak antolatzean eta haietan jardutean.

d) Efizientzia, aurrekontu-egonkortasun, finantza-iraunkortasun eta kudeaketa gardenaren printzipioa. Aurrekontu-araudiak eta aurrekontu orokorretako urteroko aurreikuspenek ezartzen dituzten mugak zaindu beharko dira, langile-arloan bereziki (lan-kontratudunak ere hor sartzen dira).

2.- Administrazioen arteko lankidetzaren printzipioa aplikatuz, betebeharrak hauek dituzte administrazio publikoek:

a) Beste administrazioen eskumen-erabilera legitimoa errespetatzea.

b) Eskumen propioen erabilera egiterakoan, inplikatur dauden interes publiko guztiak neurtzea, eta, zehazki, kudeaketa beste administrazioen esku duten interesak neurtzea.

c) Beste administrazioei ematea eskumen propioak erabiltzeko jardueretan behar duten informazioa edo herritarrek gairen bati buruzko informazio osoa eskuratzeko behar dutena.

d) Beste administrazioek haien eskumenak eraginkortasunez gauzatzeko eskatzen dieten laguntza ematea, beren eremuan.

e) Laguntza emateko betebeharretik eratortzen diren obligazioak betetzea, baita arauz ezartzen diren beste obligazioak ere.

3.- Kasu hauetan ukatu ahal izango da eskatzen den laguntza eta lankidetzatza: laguntza edo lankidetzatza eskatzen zaion erakunde edo organismoak gaitasunik ez duenean bere arautegi espezifikoaren arabera laguntza edo lankidetzatza hori emateko, nahiko bitartekorik ez duenean, laguntza edo lankidetzatza emanez gero kalte larria eragiten zaienean zaintzeko agindu zaizkien interesei edo bete beharreko funtzioak betetzeari, edo eskatzen den informazioa isilpekoa edo ezkutukoa denean. Laguntza ukatuz gero, zergatik ukatzen den jakinarazi beharko zaio administrazio eskatzaileari.

6. artikulua.- Euskal sektore publikoa sortzeko eta eraldatzeko printzipioak.

1.- Euskal sektore publikoko subjektuek printzipio espezifiko hauek bete beharko dituzte:

a) Administrazioaren nortasun juridikoaren batasunari lehentasuna emateko printzipioa. Horren arabera, kasu honetan bakarrik sortuko dira nortasun juridiko propioa duten erakundeak: Administrazio Orokorreko organo eta administrazio-zerbitzuen bidez ezin denean lortu bete beharreko interes orokorra edo eman beharreko zerbitzua.

b) Subsidiarioritasun-printzipioa. Horren arabera, kasu hauetan eratu daitezke zuzenbide pribatuko erakundeak: ekimen pribatuak ez duenean behar bezala bermatzen zerbitzu edo prestazio jakin batera iristeko bidea, edo erakunde horiek sortzea justifikatzen duten ordena publikoko arrazoiak daudenean.

2.- Euskal administrazio publikoek eta euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeek kasu honetan bakarrik eratuko dituzte beste erakunde batzuk edo parte hartuko dute lehendik dauden beste erakunde batzuetan: interes orokorra ezin denean efikaziaz eta efizientziaz bete dagokion sektore publikoak

momentuan dituen giza baliabideekin eta baliabide material eta antolamendukoekin.

3.- Administrazioko organoek edo sektore publikoko erakundeek betetzen dituzten zereginak aurrerantzean beteko dituzten erakundeak sortzeko, derrigor berrantolatu beharko dira bitartekoak eta, horretarako, zegozkien eskumen edo funtzioetarako erabiltzen ziren baliabideak murriztu, ezabatu edo transferitu beharko dira.

4.- Erakunde sortu berriek, bestalde, jarduteko edo funtzionatzeko behar duten formarik egokiena hartuko dute, lege honetan erakunde bakoitzarentzat arautzen diren printzipioen arabera.

7. artikulua.- Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakunde Arteko Batzordea.

1.- Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakunde Arteko Batzordea eratzen da.

2.- Eusko Jaurlaritzan Administrazio Publikoaren arloko eskumena duen sailburua izango da batzordeburua. Batzordekideak, berriz, adituak izango dira eta Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta Eudel Euskadiko Udalen Elkarteak izendatuko dituzte, arauz ezartzen den moduan.

3.- Batzordeak hainbat zeregin izango ditu, zeregin horiek txosten bidez gauzatuko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko maila instituzional bakoitzeko gobernuak izango dira hartzaileak. Hona hemen zereginak:

a) Aztertzea ea eraginkortasun-gabezia, gainjartze eta bikoiztasunik dagoen sektore publikoen artean –berezi sektore publiko osoa eta estatuko sektore publikoa kontuan hartuz– eta, baldin badago, jarduera-proposamenak egitea halakoak konpontzeko.

b) Azterlanak eta proposamenak egitea administrazioen arteko laguntza, lankidetzeta eta koordinazioari buruz.

c) Azterlanak eta proposamenak egitea administrazio publikoen eta horiek osatzen dituzten sektore publikoen antolamendu eta funtzionamenduari buruz.

II. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde-antolamendua.

I. kapitulua.- Erakunde-motak eta erakundeen sailkapena.

8. artikulua.- Administrazio Orokorra eta Instituzionala.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra da lurralde-erakunde bakarra gainontzeko erakundeak mendean eta atxikita dituen. Alegia, haren mende eta hari atxikita daude erakunde guztiak. Erakundeok, bestalde, legez ezarritako sailkapenaren arabera dagokien pertsonifikazio juridikoa hartu beharko dute.

2.- Erakunde inestituzional mota hauek daude Administrazio Inestituzionalaren barruan; denek erabil ditzakete ahal publikoak:

- a) Organismo autonomoak.
- b) Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.

9. artikulua.- Sektore publikoari atxikitako edo lotutako erakunde instrumentalak.

1.- Honako hauek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Inestituzionalaren barruan dauden erakundeek eta haien sektore publikoko erakunde instrumentalek. Hauek dira azken horiek:

- a) Sozietate publikoak.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioak.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.

2.- Erakunde horiek denek nortasun juridiko propioa izango dute, gainerako erakundeek dutenaz bestelakoa.

10. artikulua.- Administrazio independentea.

1.- Salbuespen gisa, erabakitze-funtzioak sortu ahal izango dira, eta funtzio horiek esleituko zaizkie kide bakarreko organoei, kide anitzeko organoei, organismo autonomoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei edo partzuergoei. Aipatutako erakunde horiek Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruko administrazio independentetzat joko dira, beraien zereginak betetzeko independentzia edo autonomia berezia behar dutenean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor edo Inestituzionalarekiko edo, hala badagokio, hura osatzen duten erakundeekiko.

2.- Administrazio-agintaritza independenteek enpresa- edo merkataritza- interesak alde batera utzita beteko dituzte haien jarduerak eta helburuak.

3.- Horrelako kasuetan, sortze-arauak lege-mailakoa izan beharko du, eta eduki hau bildu beharko du nahitaez:

a) Azalpena: zergatik behar den, eta zer independentzia funtzional edo autonomia egozten zaion. Halaber, ziurtatu beharko da esleitutako funtzioak ez daudela bikoiztuta.

b) Nola osatzen diren erabakitze-funtzioak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartzeaz arduratzen diren organoak, eta zer irizpide erabiltzen den organo horiek izendatzeko. Horretarako, bermatu egin beharko da organo horietako kideak independenteak direla eta funtzioak betetzeko kaudimen teknikoa dutela; era berean, bermatu beharko da haien bateraezintasunen eta ordezkapenen araubidea, eta gutxienez bi urtean ez direla kargutik mugituko.

c) Zer erabakitze-funtzio agintzen zaien, eta nola hartzen diren erabakitze-funtzioak jasotzen dituzten akordioak, kolegiatasunaren edo espezialitate teknikoaren printzipioaren arabera.

4.- Artikulu honek aipatzen dituen organoetako kideak, bestalde, legeek aurreikusitako abstenitze-, errefusatze- edo ezintasun-zioen menpe egongo dira, eta dagozkien diziplina- eta etika-araubideak bete beharko dituzte.

5.- Administrazio independenteko organo edo entitate horiek berregituratzeko eta deuseztatzeko, haien sortze-araua aldatzen edo indargabetzen duen lege-mailako arau bat beharko da.

II. kapitulua.- Administrazio Orokor eta Instituzionalaren egitura eta antolamendua.

11. artikulua.- Antolamendu- eta funtzionamendu-printzipioak.

1.- Administrazio Orokor eta Instituzionala printzipio hauen arabera antolatzen da:

a) Hierarkia, zuzendaritza-lanak betetzeko; eta deskontzentrazio funtzionala, hala badagokio, kudeaketa- edo betearazte-jarduerak egiteko.

b) Ekonomizatzea eta baliabideak egoki esleitzea, helburu instituzionalak betetzeko; ahal dela, eskala-ekonomiak aprobetxatuz.

c) Antolamendu sinple eta argia.

d) Subsidiaritasuna, egitura betearazi eta egokitzeko.

2.- Printzipio hauetara egokitzen da jarduera: legezkotasuna, objektibotasuna, gardentasuna, publikotasuna, efikazia eta efizientzia. Printzipio horiek betetzeko berme modura, organoen arteko koordinazioa sustatu eta gauzatuko da, eta, betiere, lurralde historikoetako eta toki-administrazioetako organoekiko koordinazioa bermatuko da eta haiekin lankidetzan aritzea bultzatuko da.

3.- Artikulu honetan jasotzen diren printzipioak honako irizpide hauetan gauzatzen dira, eta antolatzeke diseinuari aplikatuko zaizkio:

a) Ezer antolatzean, zerbitzu publikoa bideratzea izango da helburu bakarra, baliabideak herritarrek asetzeraz zuzenduz, eta administrazioaren barne-koordinazioa bultzatuz.

b) Ahaleginak egingo dira gizartearen eskariei erantzuteko, genero-ikuspegia sartuz, modu aktiboan entzunez, antolamendua ingurune aldakorrera egokituz, eskakizun berriei aurrea hartuz eta efikazia- eta efizientzia-helburuak betez.

c) Egiturak lautuko dira, baliorik eransten ez duten eta burokrazia gehitzen duten maila hierarkikoak ezabatuz, eta prozesukako kudeaketara, helburuen plangintzara eta emaitzen kontrolera bideratutako antolamendu-egitura dinamikoak osatuz.

d) Eduki zabaleko funtzio-arloak zein diren zehaztuko da, kontuan hartuz kudeatu beharreko gaiaren identitatea eta berezkotasuna, lan-fluxua, eremua, helburua eta xede-publikoa, eta barne- eta kanpo-informazioaren fluxuak optimizatzen dituzten eta lan korporatiboa sustatzen duten zerbitzu eta tresna korporatiboak erabiliz.

e) Zuzendaritza-molde berriak sustatuko dira, eta, horretarako, parte-hartze, konfiantza eta autonomia arduratsuko barne-espazioak sortuko dira alde batetik (helburu eta emaitzak lortzeko konpromisoa izango du autonomia arduratsu horrek); eta, bestetik, ateak zabalduko zaizkio herritarren parte-hartzeari, herritarrek zeresana izan dezaten politika eta zerbitzu publikoen plangintza eta ebaluazioan eta ekintza publikoaren kontu ematean.

f) Administrazioeko giza baliabideak erabiltzeko modua optimizatuko da. Ez da onartuko baliabide propioekin egin daitezkeen jarduera eta zerbitzuak eta funtsezko funtzio publikoak kanporatzea.

12. artikulua.- Administrazio Orokorra.

1.- Funtzionalki, sailetan banatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, eta hierarkikoki antolatutako organoek osatzen dute. Nortasun juridiko bakarraz dihardu bere helburuak betetzeko, Jaurlaritzari

buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 53. artikulua ezartzen duen moduan.

2.- Administrazio Orokorrek bere instituzioen egoitzan gauzatzen du bere jarduera. Jarduera hori, ordea, lurraldeka gauzatu dezake, modu deskontzentratuan, bere organo periferikoen bidez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako lurralde-ordezkaritzen edo bulegoen bidez, alegia, eta, bere eskumenen esparruan, Euskadik kanpoan dituen ordezkaritzen bitartez.

13. artikulua.- Goi-organoak eta goi-kargudunak.

1.- Honako hauek dira goi-organoak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak.

b) Sailburuordetzak, antolamendu-unitate gisa: zenbait zuzendaritza biltzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail guztietan, eta arduradun bakarra dute. Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuan ezarritako eginkizunak betetzen ditu arduradun horrek, baita sailaren titularrak eskuordetutako gainerako guztiak ere.

c) Lehendakaritzako edo Lehendakariordetzako idazkaritza nagusiak, lehendakariak haientzat eta haien eremuan ezartzen duen antolamendu eta funtzionaltasunarekin.

2.- Lehendakariak izendatzen ditu sailburuak, eta hark kentzen ditu kargutik. Karguaz jabetzen diren egunean hasten dute zerbitzu-harremana Autonomia Erkidegoarekin, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean aurreikusten diren egoeretan uzten dute kargua.

3.- Sail bakoitzeko sailburuak proposatuko ditu sailburuordeak –eta, beharrezkoa denean, idazkari nagusiak ere bai–, eta Gobernu Kontseiluak izendatuko ditu, dekretuz.

4.- Honako hauek joko dira Euskal Autonomia Erkidegoko goi-karguduntzat:

a) Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 29. artikuluari jarraituz, sailetan sailburuorde edo zuzendari karguak betetzen dituztenak.

b) Lehendakaritzako edo Lehendakariordetzako idazkari nagusiak.

c) Euskadik kanpoan dituen ordezkariek.

d) Organismo autonomoetako eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako lehendakariak eta zuzendari nagusiak.

e) Erakundea eratzeko legean edo erakunde instrumentala menpeko den sailaren egitura-dekretuan goi-karguduntzat ezartzen direnak.

5.- Goi-kargudunek araubide juridiko espezifikoa dute. Izendapen-dekretuarekin hasten dute zerbitzu-harremana, eta kargugabetzearekin edo dimisioarekin bukatzen (ondorioak dagokion dekretuan aurreikusita egongo dira, eta dekretua argitaratzen den egunean hasiko dira).

14. artikulua.- Zuzendaritza-organok.

1.- Aurreko artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, honako hauek joko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzendaritza-organotzat:

a) Sailletako zuzendaritzak. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailletako antolamendu-unitateak dira, eta izaera bereko hainbat zerbitzu eta eginkizun hartzen dituzte barruan.

b) Euskadik kanpoan dituen ordezkariak.

c) Administrazio Orokorreko eta erakunde instituzionaletako arloko, dibisioko edo beste izen bateko zuzendaritza nagusiak, baldin eta esanbidez jotzen badira zuzendaritza-organotzat edota organoa sortzeko arauan espresuki zuzendaritzako langileztat jotzen bada organo horretako titularra.

2.- Era berean, sektore publikoko zuzendaritza-organotzat joko dira honako hauek, nahiz eta Administrazio Orokor eta Instituzionalekoak ez izan:

a) Sozietate publikoetako zuzendaritza nagusiak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioetako eta partzuergoetako lehendakariak eta zuzendaritzak.

3.- Nolanahi ere, printzipio hauek bete beharko dira zuzendaritza-organoen jardunetan:

a) Erantzukizun profesionala, pertsonala eta zuzeneko.

b) Kudeaketa-lanak goragoko organoak edo zuzendari eskudunak kontrolatu eta ebaluatzea.

15. artikulua.- Administrazio Orokorreko sailak.

1.- Administrazio Orokorreko sail bakoitzak administrazio-jarduerako arlo bat edo gehiago ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuaren barruan; arlo horiek, gainera, funtzionalki homogeneoak dira.

2.- Sailak sortu, aldatu, elkartu eta ezabatzeko, Jaurlearitzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8. artikulua bete beharko da; era berean, artikulua horri

erreparatu beharko zaio zehazteko sailek administrazio-jarduerako zein funtzio eta arlotan dituzten eskumenak. Horretarako, lehendakariak dekretu bat emango du, zehaztuko duena zer antolamendu-irizpide bete beharko duten sail guztietako egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuek.

3.- Sailka antolatzeko modu horrek ez du oztopatzen lehendakaria administrazio-jarduera jakin batzuetara atxiki ahal izatea. Hala eginez gero, lehendakariak bereganatuko ditu Jaurlaritzari buruzko legearen 26. eta 61. artikuluetan aipatzen diren eskumenak, eta Lehendakariatzako sailburu bati, idazkari nagusiei edo zuzendariei eman ahal izango dizkie eskuordetzan, lege horretako 39.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

16. artikulua.- Egitura organiko eta funtzionalak.

1.- Dagokion saileko titularrak proposatuta, lehendakariaren dekretuz ezarriko da Administrazio Orokorreko sailtako egitura organikoa eta funtzionala; betiere, Jaurlaritzari buruzko ekinaren 30eko 7/1981 Legeko 26. artikuluan ezarritakoaren arabera. Lehendakariari egiten zaion proposamenak, bestalde, aurreko artikuluan aipatutako dekretuan ezartzen diren irizpideak bete beharko ditu; bestela, berariaz eskatu beharko da irizpideok aldatzeko.

2.- Sailen egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuek definitzen dute zer mendekotasun-hierarkia duten sailen egiturako organoek, eta nola banatzen diren jarduera-arloak.

3.- Sail eta organismo autonomoek zuzendariordetzak eduki ditzakete administrazio-jarduerako sektore bat kudeatzeko, betiere zerbitzu-ematearen edo kudeaketa-lanen bideragarritasuna justifikatzen bada. Hierarkikoki zuzendariordetza horien menpe egon ahal izango dira atxikitzen zaizkien zerbitzu-burutzak.

4.- Era berean, organo periferikoak sortu ahal izango dira. Antolamendu- eta funtzionamendu-irizpideek justifikatuko dute organo horiek sortzea; hala ere, organo periferikoa atxikitzen den lurraldean inoiz ezingo da administrazio-egiturarik bikoiztu edo mantendu lurraldeko beste administrazio batzuk lehendik betetzen zituzten funtzio berak betetzeko. Dena dela, organo periferikoak sortu ahal izango dira organo zentralen menpean, sail bati egotzitako arlo batek edo gehiagok eskatzen dutenean herritarrei modu hurbilagoan erantzutea. Azkenik, lurralde-bulegoak ere egon daitezke sailtako gaiak kudeatzeko.

5.- Egitura organikoari eta funtzionalari buruzko dekretuek, zuzendariordetzak zerrendatzeaz gain, sortzen diren lurralde-bulego eta lurralde-ordezkaritzak zerrendatuko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruan egonik sailari atxikita dauden erakundeak ere. Era berean, zera

identifikatuko dute ezinbestean: kide anitzeko zer organo azaltzen diren egituran, eta horietatik zeintzuk erabiltzen jarraituko den.

17. artikulua.- Euskadik kanpoan duen administrazioa.

Behar izanez gero, eskumen funtzionala Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo betetzen duten organoak sortu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren berezko eskumenak garatzeko. Euskadik kanpoan dituen ordezkariak, berriz, kanpo-harremanetako eskumenak dituen sailari atxikiko zaizkio.

18. artikulua.- Kide anitzeko organoak.

1.- Oinarrizko legeriaren arabera era daitezkeen kide anitzeko organo ez gain, kide anitzeko organoak sortu ahal izango dira aholkularitza- edo partaidetza-funtzioak betetzeko, betiere erakunde arteko koordinazio- eta lankidetzamekanismoak edo era horretako mekanismo publiko-pribatuak ez badira eraginkorrak. Kide anitzeko organo horiek proposamen-, aholku-, jarraipen- edo kontrol-funtzioak izango dituzte.

2.- Administrazio aholkuemailea bi modutara egituratu ahal izango da: autonomia organiko eta funtzionala duten organo espezifikoen bidez edo horiek laguntza juridikoa emateko dauzkaten zerbitzuen bidez.

Halakoetan, zerbitzu horiek ezingo dute hierarkia-mendekotasun organiko eta funtzionalik izan eta ezingo dute jarraibide, gidalerro edo edonolako oharpenik jaso kontsultagai diren xedapenak edo jarduerak sortzen dituzten organoetatik. Berme horiek betetzeko, modu kolegiatuan jardungo dute.

3.- Aholkularitza- edo partaidetza-funtzioak betetzeko kide anitzeko organo baten sortze-arauak eduki hau izango du, gutxienez:

a) Azalpena: zergatik behar den. Esleitutako funtzioak ez daudela bikoiztuta ziurtatu beharko da.

b) Zer xede eta helburu dituen.

c) Nola integratzen den administrazioan, edo zer hierarkia-mendekotasun duen.

d) Zein den bere osaera eta zer irizpide erabiltzen den lehendakaritzako titularra eta gainerako kideak izendatzeko.

e) Zer proposamen-, aholku-, jarraipen eta kontrol-funtzio gomendio uzten zaizkion, eta zer beste funtzio egozten zaizkion.

f) Hala badagokio, zer kreditu jartzen zaion funtzionatzeko.

4.- Dena den, kide anitzeko organoari administrazio- eta kudeaketa-lanak egiten laguntzeko, organo hori atxikitzen den edo menpeko den Administrazio Orokorreko edo erakundeko sailaren edo sailen giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko zaizkio; salbu kontrakoa justifikatzen denean hura sortzeko araua izapidetzeko espedientean.

5.- Urtero, kudeaketa-memoria idatzi beharko da, eta publikoki emango dira horren kontuak. Administrazio Orokor eta Instituzionalaren barruan sortutako kide anitzeko organo guztiei aplikatuko zaie arau hau; berdin da artikulua honek arautzen dituen edo zuzenean aplikatzen zaien oinarritzko legeriak arautzen dituen. Organoak jarduerarik ez badu, ea berriro formulatu behar den ala ezabatu egin behar den erabaki beharko da.

6.- Kide anitzeko edozein organoren osaeran Administrazio Orokorreko hainbat sailtako edo euskal sektore publikoko erakundeetako kideak badaude, dekretua izango da organo horiek sortzeko araua. Bestela, organoa zein sailtan sortzen den, sail horretako titularraren agindu baten bidez sortuko da.

7.- Kide anitzeko organoak sortzen direnean, publikotasun aktiboa eman beharko zaie. Gainera, kide anitzeko organoaren sorrerak eskumenak esleitzen badizkio organo horri beste organo batzuek erabaki beharreko kontuen gaineko nahitaezko txostenak egiteko edo beste organo batzuen jardueraren gaineko jarraipen- eta kontrol-lanak egiteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da sortze hori.

8.- Aurreko arau horiek aplikatu beharko zaizkie organismo autonomoetako kide anitzeko organoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetakoei eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetakoei.

19. artikulua.- Herritarrek eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorak.

1.- Herritarrek eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorak ezarriko dira Administrazio Orokorreko sailtan eta Administrazio Instituzionaleko erakundeetako barne-antolamenduan, eztabaidak edo proposamenak egin ditzaten politika publiko bati edo elkarri lotutako politika publikoei buruz, edo gizarte-ezaugarri edo ezaugarri pertsonal komunak dituen populazio-sektore bati buruz.

2.- Herritar eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorrek modu orekatuan bideratuko dute herritarren presentzia eta neurri egokia eta eztabaiden kalitatea eta gizarte-aniztasuna, eta oinarritzat hartuko dute elkarrenganako konfiantza, gardentasuna eta balio publikoa sortzeko gobernu egokia.

3.- Beste gune informal eta tresna batzuk ere sustatuko dira herritarrek parte hartzeko, lege honetan ezarritakoaren arabera.

4.- Herritarrek eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorrek errespetatu egin beharko dute euskal gizartearen ideologia-, gizarte-, ekonomia- eta kultura-aniztasuna.

20. artikulua.- Administrazio-organoak.

1.- Legeak ezartzen duenaren arabera sortu, aldatu eta ezabatu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako organoak.

2.- Administrazio-unitateak organotzat joko dira, baldin eta nahitaezkoa bada eurek jardutea, edo esleitzen zaizkien zereginen ondorio juridikoak badituzte hirugarrenentzat.

3.- Lege honek Administrazio Orokorren egitura organiko eta funtzionalari buruz ezartzen duenaren kaltetan izan gabe, erakunde bakoitzak zehaztu behar du, nor bere eskumenen eremuan, zein administrazio-unitatek osatzen dituen bere administrazio-organoak, hain zuzen ere, ezarrita duten antolamenduaren araberrako espezialitateei dagozkienak.

4.- Edozein administrazio-organo sortzeko, gutxienez betekizun hauek bete beharko dira:

a) Dagokion administrazio publikoan nola integratuko den eta zeinen mende egongo den zehaztu behar da.

b) Haren egitekoak eta eskumenak mugatu behar dira.

c) Abian jartzeko eta jarduteko beharko dituen kredituak jarri behar dira.

5.- Ezin izango da sortu lehendik dagoen organoren bat bikoiztea dakarren organo berririk, aldi berean ez bazaie eskumena kentzen edo behar bezala murrizten lehendik zeuden organoei. Hori hala izan dadin, organo berri bat sortzeko, aurrena egiaztatu egin beharko da administrazio publiko berean ez dagoela beste organo bat lurralde edo herri berean zeregin berbera betetzen duena.

6.- Administrazio publiko bereko administrazio-organoen arteko komunikazioa zuzenean bitarteko elektronikoen bidez egingo da, hori ezinezkoa denean izan ezik. Ezinezkoa bada, papera edo posta arrunta erabiliko da, edo, bestela, beste modu baliokideren bat.

21. artikulua.- Administrazio-unitateak.

1.- Egitura organikoak antolatzeko oinarritzko elementuak dira administrazio-unitateak. Hainbat funtzio eta jarduera bilduta, produktu edo zerbitzu jakin bat

osetzen dute, eta, emaitza gisa, ekarpen integratua egiten diote kanpoko edo barruko bezero bati. Zeregin homogeenak izateagatik funtzionalki lotuta dauden eta organikoki burutza berak batzen dituen plantillako lanpostu edo dotazioez osatzen dira unitateak. Administrazio-unitate konplexuak ere egon daitezke. Bi unitate txiki edo gehiago biltzen dituzte halakoek.

2.- Administrazio-unitateetako burutzak arduratzen dira unitatearen funtzionamendu egokiaz eta unitateari esleitutako eginkizunak ondo egiteaz.

3.- Administrazio-unitateak lanpostu-zerrenden bidez ezartzen dira –berariaz duten araubidearen arabera onartzen dira zerrenda horiek–, eta organo jakin batean txertatzen.

III. kapitulua.- Eskumena.

22. artikulua.- Printzipio orokorrak.

1.- Ez dago ordenamendu juridikoak esleitutako eskumenari uko egiterik. Esleituta duen administrazio-organismoak baliatu behar du eskumena, lege honetan araututako egoeretan izan ezik.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eskumen bat generikoki esleitzen bazaio baina ez bada zehazten zer sailek bete behar duen, gaiaren arabera erabakiko da zer saili dagokion. Eta irizpide horren arabera ezin bazaio sail jakin bati egotzi, Lehendakaritzari egotziko zaio, edo lehendakaritzako eskumena duen sailari.

3.- Sail batek esleituta dituen eskumenen zereginak lege ez bazaizkio administrazio-organismo jakin bati egotzen, ulertuko da sailaren mendeko organoei egotzen zaizkiela, hain zuzen ere gaiaren eta lurraldearen arabera eskumenak dituztenei; halako organo bat baino gehiago badago, hierarkian maila gorenena duenari. Hala ere, sail bereko beste organo bat ere izendatu ahal izango da eskumenen titular.

4.- Kudeaketa-gomendioak, izenpea eskuordetzan emateak edo ordezkariak ez du aldatzen eskumenaren titularra; aldatzen dira, ordea, kasu bakoitzean eskumena erabiltzeko aurreikusita dauden elementuak.

23. artikulua.- Deskontzentrazioa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoen berezko eskumenen titulartasuna eta erabilera deskontzentratu ahal izango dira hierarkikoki menpekoak diren beste organo batzuetan, hala zentraletan nola periferikoetan, lege honetan ezarritako printzipioen arabera; salbu kontrakoa ezartzen duen xedapenen bat dagoenean.

2.- Eskumenen deskontzentrazioa eta deuseztapena egitura organiko eta funtzionalaren dekretuari erreferentzia eginez bilduko dira, eta bertan onartuko dira, beste lege berezi batzuek ezartzen dutena eragotzi gabe.

24. artikulua.- Zerbitzuko jarraibide, zirkular eta aginduak.

1.- Goi-organoek eta zuzendaritza-organoek administrazio-jarduera bultzatu eta gidatuko dute, zerbitzuko jarraibide, zirkular eta aginduen bidez.

2.- Saitetako titularrek agindu dezakete zerbitzuko jarraibide, zirkular eta aginduak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, xedapen batek hala ezartzen duenean edo komenigarritzat jotzen denean herritarrek edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko gainerako organoek ezagutzea zerbitzuko jarraibide, zirkular eta agindu horiek. Bestalde, egoitza elektronikoaren bidez ere eman dakieke horiei zabalkundea.

3.- Zerbitzuko jarraibide, gidalerro, zirkular eta aginduak ez betetzeak ez dio eragiten, izatez, administrazioko organoen jarduketan balioari. Hala ere, diziplinazko erantzukizunak eska daitezke.

25. artikulua.- Eskuordetza ematea.

1.- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoen titulartasuneko eskumenak eskuordetzan eman ahal izango zaizkie administrazioko beste organo batzuei, nahiz eta organo horiek hierarkikoki mendekoak ez izan. Euskal Autonomia Erkidegoko euskal sektore publikoaren barruan dauden beste erakunde instituzionaletako organoei ere eman dakieke eskuordetza.

2.- Eskumena eman eta hartzen duten organoak sail berekoak badira baina ez badute hierarkia-harremanik, goragoko organo komunaren onarpena beharko da. Eskumena eman eta hartzen dutenak ez badira sail berekoak, eskumena hartzen duen saileko titularraren baimena beharko da, baita eskumena ematen duen saileko titularrarena ere.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo batek eskumenak eskuordetzen dizkionean Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein erakunde instituzionalen organoren bati, eskuordetzea egiten duen organoa eta eskuordetza hartzen duena zein organoren mende dauden (inoren mende badaude), organo horien onarpena beharko da lehendabizi. Salbu eskuordetzea egiten duena bera denean erakunde instrumentala atxikiko den saileko titularra; kasu horretan, nahikoa izango da hark erabakitzea.

4.- Lehendakariari, Gobernu Kontseiluari eta sailburuei esleitutako eskumenak eskuordetzeko, Jaurlaritzari buruzko Legea bete beharko da, betiere lege honetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

5.- Prozedura bat ebazteko eskumena eskuordetzan emateko, ez da eragozpen izango hura erregulatzen duen arauak nahitaezko izapide modura aurreikustea irizpen edo txosten bat eman behar dela. Hala ere, ezin izango da gai jakin bat ebazteko eskumena eskuordetzan eman, baldin eta gai horri buruzko nahitaezko irizpen edo txostenik eman bada dagokion prozeduran.

6.- Eskumenak eskuordetzan ematea eta eskuordetzearen errebokazioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira, eta informazio horrek beti egon beharko du irisgarri eskumenak eskuordetzan ematen dituen saileko edo organoko web orrian.

7.- Eskuordetzaz baliatuz ematen diren administrazio-egintzek eta -ebazpenek espresuki adierazi beharko dute eskuordetzaz ematen direla; argitalpen ofizialaren zenbakia eta data aipatu beharko dute. Eta organo eskuordetza-emaileak emandakotzat joko dira.

8.- Inoiz ezin izango dira eskuordetzan eman honako hauek:

- a) Konstituzio- edo estatutu-organoeikiko harremani buruzko gaiak.
- b) Gobernu Kontseiluak onartu beharreko ebazpen-proposamenak diren egintzak.
- c) Xedapen orokorrak emateko eskumena.
- d) Egintza deusezak ofizioz berrikusteko eskumena eta egintza deuseztagarriak kaltegarritzat jotzeko eskumena.
- e) Kargak ezartzeko edo kalterako diren egintzak errebokatzeko eskumena.
- f) Errekurritutako egintzetan administrazio-organoei errekurtsoak ebazteko eskumena
- g) Lege-mailako arauak zehazten dituzten gaiak.
- h) Eskuordetzaz baliatuz erabiltzen diren eskumenak, salbu lege batek berariaz onartzen dituenen.

9.- Eskuordetza ematen duen organoak edozein unetan erreboka dezake eskuordetzea.

10.- Kide anitzeko organo batek quorum berezia behar badu normalean diharduenean, eskumenak eskuordetzan emateko ere quorum bera zaindu beharko du.

11.- Eskuordetze hori urtebete baino gehiago luzatuz gero, deskontzentratu egin beharko da.

26. artikulua.- Sinadura eskuordetzan ematea.

1.- Administrazio-organoetako titularrek haien eskumeneko administrazio-ebazpen eta -egintzetako sinadurak eskuordetzan eman ahal izango dizkiete menpean dituzten administrazio-organoetako titularrei, eskuordetze-mota hori arautzen duen araubide juridiko orokorraren arabera.

2.- Gainerako organoetako titularrek, berriz, menpean dituzten administrazio-unitateei eman ahal izango diete eskuordetzan sinadura, goragoko organoaren baimenarekin.

3.- Sinadura eskuordetzan emanaz gero, eskuordetzea ez da argitaratu behar.

4.- Sinadura eskuordetzan emateak ez du aldatuko organo eskuordetza-emailearen eskumena, eta, eskuordetzea baliozkoa izateko, ez da beharrezkoa izango argitaratzea; baina, eskuordetzaz sinatzen diren ebazpen eta jardueretan, adierazi egin beharko da norena den eskumena.

5.- Zehatzeko ebazpenak ezin izango dira eskuordetzaz sinatu.

27. artikulua.- Kargudunak ordeztea.

1.- Ordezkoak hartu ahal izango dira goi-kargudunen zereginak aldi batez betetzeko, baldin eta haien lanpostuak hutsik badaude, goi-kargudunak absente edo gaixo badaude, eragozpen pertsonalen bat badute edo aitatasun- edo amatasun-baimena badaukate. Sailaren egitura organikoari buruzko dekretuak ezarriko du ordezkapenak egiteko modua.

2.- Goi-kargudun izan gabe administrazio-organoetako titular diren pertsonen ordezkapenak egiteko, oinarrizko legeriak ezartzen dituen arau orokorrak bete beharko dira.

28. artikulua.- Goragokoak eskumena bereganatzea.

1.- Intzidentzia tekniko, ekonomiko, sozial, juridiko edo lurralde-mailakorik baldin badago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko organoek bereganatu ahal izango dute gai bat ezagutzeko eskumena, nahiz eta normalean edo eskuordetzaz haien menpeko administrazio-organoen zeregina izan gai hori ebatzea.

2.- Eskumenak eskuordetzan emanaz gero hierarkian mendeko ez diren organoei, organo eskuordetza-emaileak bakarrik erabaki dezake eskumena goragoko batek bereganatu behar duela.

3.- Goragoko organoak eskumenak bereganatzeko, erabaki arrazoitu bat izan behar da tartean, eta horren berri eman beharko zaie prozedurako interesdunei

-halakorik badago-, azken ebazpena eman baino lehen. Eskumenak bereganatzeaz baliatuz hartzen diren erabakietan, espresuki aipatu beharko da goragoko organoak bereganatuta dituela eskumenak. Goragoko organo batek eskumenak bereganatuz gero, horren berri eman beharko zaio eskumena eman duen organoaren mailaz goragoko organoari ere, eskumenak bereganatze hori sailburuak erabakitzen duenean izan ezik.

4.- Ezin izango da errekurtsorik jarri goragokoak eskumenak bereganatzeko erabakiaren kontra. Hala ere, eskumenak bereganatze hori legez kontrakoa dela ustez gero, prozedurako ebazpenaren aurka errekurtsoa jarriz egin dakioke kontra.

29. artikulua.- Kudeaketa-gomendio intrasubjektiboa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoek edo haren mendeko erakunde instituzionalek administrazio edo erakunde bereko beste organo batzuei gomendio utz diezazkiekete beren eskumeneko jarduera materialak, teknikoak eta zerbitzuzkoak, baldin eta efikaziari begira komeni bada edo baliabide egokirik ez badaukate jarduera horiek gauzatzeko.

2.- Kudeaketa-gomendioak ez dakar eskumenaren titulartasuna lagatzea, ezta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea ere. Kudeaketa-gomendioetan, gomendio uztea egiten duen organoak hartu beharko ditu gomendio utzitako jarduera material zehatzari oinarri ematen dioten edo hura barne hartzen duten egintza edo erabaki juridiko guztiak.

3.- Saileko titularrak eman beharko du baimena kudeaketa-lanak sail bereko beste organo batzuei gomendio uzteko. Kudeaketa-lanak beste sail bateko organoei edo haren menpeko organoei gomendio uzteko, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da.

4.- Kudeaketa-gomendio intrasubjektiboa formalizatzeko, baimentze-ebazpena eman beharko da, eta, kudeaketa-gomendioa baimendu ondoren, dagokien organoek akordioak sinatu beharko dituzte. Horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eduki honekin gutxienez:

- a) Zer jarduera ukitzen dituen.
- b) Zeintzuk diren kudeaketa-gomendioaren izaera eta nondik norakoak.
- c) Noiz arte egongo den indarrean, eta zer egoeratan aurreratu edo luzatuko den kudeaketa-gomendioaren amaiera.

Kudeaketa-gomendioaren indarraldia luzatzea erabakiz gero, luzapenak ere argitaratu beharko dira, paragrafo honetan deskribatutako moduan.

5.- Erakunde parte-hartzaileen web orrietan argitaratu beharko da kudeaketa-gomendioa, haren berri emateko.

30. artikulua.- Kudeaketa bateratuko zentroak.

1.- Kudeaketa bateratuko zentroak administrazio-organoak dira, eta hain zuzen ere honetarako era daitezke: izapidetzeko konplexuak diren edo eragin ekonomiko edo sozial handia duten prozesuak modu bateratuan kudeatzeko. Banaketa administratibo funtzionala gainditzen dute, eta zerbitzu publikoen hartzzaileen eta erabiltzaileen premietara egokitzea ahalbidetzen dute, kontaktu-gune bakar baten bidez pertsona horiek lehenbailehen artatzeko aukera eskainiz, erantzuteko epe laburrago batez.

2.- Artikulu honen ondorioetarako, hauxe jotzen da prozesutzat: herritarrei erantzun edo zerbitzuak emateko beharrezkoak diren administrazio-izapideen sekuentzia ordenatua; izapide horiek elkarri lotuta egoten dira, eta sail bateko edo gehiagoko administrazio-organo edo -unitateek hartu behar izaten dute haietan parte, araudi erregulatzailerekin bat etorritz.

3.- Gobernu Kontseiluaren dekretuz sortuko dira kudeaketa bateratuko zentroak, eta dekretu horietan zehaztuko da zein den zentroen antolamendua eta zeintzuk diren prozesuan parte hartu behar duten organo eta unitateen jarduerak koordinatu eta bizkortuko dituzten funtzionamendu-arauak.

4.- Funtzio hauek guztiak edo batzuk bete behar dituzte prozesuak modu bateratuan kudeatzen dituzten zentroek:

a) Aplikatu beharreko araudiaren arabera egin behar diren izapideei buruzko informazioa ematea herritarrei.

b) Erregistro-funtzioa.

c) Espedienteen jarraipena egitea, eta interesdunei adieraztea izapideak zer egoeratan dauden.

d) Administrazio Elektronikoa: Interneten edo sare sozialetan egotea.

e) Kontratazio publikoa.

5.- Dagokion lankidetzaren bidez, beste administrazio publiko bati dagozkion zereginak egin ditzakete kudeaketa bateratuko zentroek, baina titulartasuna behin ere aldatu gabe.

IV. kapitulua.- Administrazioen arteko lankidetzaren eta koordinazioa.

31. artikulua.- Araubide orokorra.

Administrazio publikoek elkarri laguntzeko betebeharra dute, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak hori kontuan hartuz eta lankidetzaren eta erakundeen arteko leialtasunaren printzipioa aintzat hartuz jarduten du. Legeek elkarlan, koordinazio eta lankidetzarako aurreikusten dituzten tresna eta teknikak erabiltzen ditu horretarako.

32. artikulua.- Lankidetzak ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa.

1.- Administrazio Orokor eta Instituzionalak, sektore publikoko erakundeek, foru-organismoek, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek eta beste administrazioek interes komuneko gaiak dituztenean esku artean, lankidetzak ekonomiko, tekniko eta administratiboan arituko dira. Horretarako, partzuergo, jarduera-plan bateratu, eskuordetza, kudeaketa-gomendio edo administrazio-hitzarmenak erabiliko dituzte, lege honek eta aplikatu beharreko gainerako legeek aurreikusten duten modu eta baldintzetan. Lankidetzak-akordioak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako dira.

2.- Lankidetzaren printzipioa gauzatzeko, egokienak iruditzen zaizkien teknikak erabil ditzakete administrazio interesdunek. Honako hauek, esate baterako:

a) Lankidetzak-organismoetan parte hartzea, hainbat administrazio publikoren eskumenekoak diren gaiei buruz eztabaidatzeko eta, beharke balitz, neurriak erabakitzeko.

b) Beste administrazio publikoen organismo aholku-emailetan parte hartzea.

c) Administrazio publiko batek beste administrazio baten menpeko edo beste administrazio bati lotutako erakunde edo organismo publikoetan parte hartzea.

d) Beste administrazio publiko batzuei uztea baliabide material eta ekonomikoak eta langileak.

e) Gai jakin bat erregulatzen duen arautegia modu koordinatuan aplikatzeko, administrazioen arteko lankidetzan jardutea.

f) Nahitaezkoak ez diren txostenak egitea, administrazio bakoitzak bere irizpideak azal ditzan berari dagozkion eskumenetan eragina duten proposamen edo jarduerari buruz.

g) Lankidetzan aritzea ondare-legerian aurreikusita dauden jardueretan, ondarearekin zerikusia dutenetan, alegia, titulartasun-aldaketak eta ondasun-lagapenak ere hor sartzen direlarik.

3.- Formalizatzen diren lankidetzak-hitzarmen eta -akordioetan, alderdi sinatzaileen betekizunak eta konpromisoak ezarriko dira.

4.- Erakundeek parte hartzen duten lankidetzaz-organoen eta sinatzen diren hitzarmenen erregistro elektronikoa egingo da, eta beti eguneratuta egongo da erregistro hori.

33. artikulua.- Lankidetzaz-hitzarmenak.

1.- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek lankidetzaz-hitzarmenak sinatu ahal izango ditu gainerako administrazio publikoekin, nor bere eskumen-esparruan jokatu. Hala ere, Gobernu Kontseiluak baimendu edo onartu beharko ditu.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Instituzionaleko erakundeek ere lankidetzaz-hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte artikulua honetan adierazten diren beste administrazio publikoekin, eta, sinatuz gero, dagokien araubide juridikoaren arabera jardun behar dute.

3.- Protokolo orokorra esango zaio hitzarmenari, bere helburua hauetakoren bat denean: orientazio-jarraibideak ezartzea administrazio publiko bakoitzak jakiteko nola jokatu behar duen guztientzat interesgarriak diren gaietan, edo esparru orokorra eta metodologia finkatzea eskumen-arlo partekatu batean edo batoren eta besteren intereseko gai batean lankidetzaz jarduteko.

4.- Hitzarmen-agiriekin honako hauek zehaztu beharko dituzte, hala dagokionean:

a) Zer organok sinatzen duten hitzarmena, eta zein gaitasun juridikoz diharduen alderdi bakoitzak.

b) Zein den administrazio bakoitzaren eskumena.

c) Nola finantzatzen den hitzarmena.

d) Zer ekintza adostu diren.

e) Organizazio pertsonifikaturik behar den ala ez hitzarmena kudeatzeko.

f) Zein den hitzarmenaren indarraldia, eta aukerarik badagoen hura luzatzeko; aukerarik badago, zein den hitzarmena luzatzeko araubidea.

g) Zer arrazoiengatik jo daitezkeen amaitutzat hitzarmena bere indarraldia amaitu aurretik, eta, amaitutzat joz gero, nola ebatzi behar diren bideratzen ari diren jarduerak.

5.- Hitzarmen horietan, hitzarmena zaintzeko eta kontrolatzeko organo mistoak eratu ahal izango dira, lankidetzaz-hitzarmenak interpretatzerakoan eta betetzerakoan azal daitezkeen arazoak ebazteko.

6.- Indarrean dagoen hitzarmenen erregistroan eta hitzarmenetan parte hartzen duten organoen web orrietan argitaratuko dira lankidetzaz-hitzarmenak, horien berri emateko.

34. artikulua.- Jarduera-plan bateratuak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak jarduera-plan bateratuak itundu ahal izango ditu beste administrazio batzuekin, administrazio-sektore jakin batean interes berak daudenean.

2.- Jarduera-plan bateratuek urteko programen bidez finkatuko dute administrazio bakoitzak zer egin behar duen planean proposatutako helburuak betetzeko, zer konpromiso bereganatzen duen, zer baliabide erabiliko duen eta nola egin behar den planaren segimendua, ebaluazioa eta aldaketa.

3.- Jarduera-plan bateratuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira, plan horiek hitzartzen dituzten administrazioetako organo eskudunek onartu eta gero.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esparruan, hitzarmen bidez formalizatuko dira jarduera-plan bateratuak.

5.- Jarduera-plan bateratuetan parte hartzen duten organoen web orrietan ere argitaratu behar dira planak, haien berri emateko; planak hitzartzen dituzten administrazioetako organo eskudunek onartu eta gero argitaratu ere.

35. artikulua.- Administrazioek funtzioak elkarri eskuordetzan ematea.

1.- Efikazia dela-eta edo lanak hobeto kudeatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta hari lotutako edo haren menpeko erakunde instituzionalek funtzioak eskuordetzan eman ahal izango dizkiete foru-aldundiei eta toki-erakundeei beren eskumeneko obrak egiteko eta zerbitzuak eta, oro har, jarduerak betetzeko, kalterik eragin gabe lurralde historikoen gaineko legearen 13. artikulua eta toki-araubideari buruzko legeriak ezartzen duenari.

2.- Hitzarmen bidez emango dira eskuordetzan. Eta, hitzarmenean, nahitaez azaldu beharreko baldintzez gain, zehaztuko da zer zuzentze- edo fiskalizatze-ahalmen gordetzen duen beretzat Administrazio Orokorrak edo Administrazio Instituzionaleko dagokion erakundeak, eta eskuordetzea hartzen duen erakundeak onartu egiten duela eskuordetze hori.

3.- Artikulu honetan aipatzen diren eskumen-eskuordetzeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira, eta, horrez gain, beti ikusgai egongo dira eskuordetzea egiten duen sailaren web orrian.

36. artikulua.- Eginkizunen eskuordetze intersubjektiboa.

1.- Gobernuaren Legeak (ekainaren 30eko 7/1981) eta Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremanei buruzko Legeak (azaroaren 25eko 27/1983) ezartzen dutena ezarrita ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, helburuak hobeto betetzeko, eginkizunak eskuordetzan eman ahal izango dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko beste erakunde bati edo interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzeko dituzten zuzenbide publikoko korporazioei, alde batera utzi gabe lankidetzan jarduteko beste teknika batzuk.

2.- Artikulu honetan adierazten den eskuordetzeak ez du berekin ekarriko ahal publikoen erabilera. Eskuordetzea, bestalde, hitzarmen espezifiko bidez egin behar da, eta Gobernu Kontseiluak baimendu behar du hitzarmen hori.

3.- Eskuordetzeak jasoko du eginkizunak zer araubide juridikorekin bete behar dituen erakunde hartzaileak, eta berariaz aipatuko du Administrazio Orokorrak nola zuzenduko dituen eskuordetzan emandako eskumenetatik beretzat gordetzen dituen eginkizunak.

4.- Hitzartutako eskuordetzeaz baliatuz erakundeak ematen dituen ebazpenek ez dute administrazio-bidea amaituko, eta aukera emango dute gorako errekurtsua jartzeko gaiaren arabera dagokion sailburuari.

5.- Eskumenak eskuordetzan ematea eta eskuordetzearen errelokazioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira, eta informazio horrek beti egon beharko du irigarri eskumenak eskuordetzan ematen dituen saileko edo organoko web orrian.

37. artikulua.- Kudeaketa-gomendio intersubjektiboa.

1.- Administrazio desberdinetako eta erakunde publikoetako organoen artean ere egin ahal izango dira kudeaketa-gomendioak, baldin eta egoera hauetakoren bat suertatzen bada:

a) Organoak dohainik egitea berari gomendio utzitako jarduera.

b) Administrazio-teknika hori erabiltzean, gomendio uztea egiten duen erakundearen berezko baliabide edo zerbitzu teknikotzat jo ahal izatea gomendio utzitako jarduera gauzatuko duen erakundea.

c) Kudeaketa-gomendia ez egotea sektore publikoko kontratuen legeari lotuta xedearen, zioaren edo juridikoki garrantzitsua izan daitekeen beste ezeren ondorioz.

2.- Administrazioen arteko lankidetzak-hitzarmenak sinatu beharko dira kudeaketa-gomendio intersubjektiboak antolatzen, eta Gobernu Kontseiluak onartu beharko ditu lehenago. Efectiboak izateko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira, dagokien gutxieneko edukiarekin; eta hitzarmena sinatzen duten organoen web orrietan ere argitaratu ahal izango dira. Kudeaketa-gomendia gauzatuko duen organoaren erakundea gomendio-uztea egingo duen erakundeko bitarteko propio eta zerbitzu teknikoetat jotzen bada, sailaren ebazpen bat beharko da gomendio-uztea egiteko; ebazpen horren bidez, bestalde, erakundea atxikiko da.

3.- Kudeaketa-gomendioaren araubide juridiko bera izango du kudeaketa-gomendia formalizatzen duen hitzarmenak, eta berariaz adieraziko du zer jarduerari eragiten dien, eta zeintzuk diren gomendio utzitako organo edo erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek -hala badagokio- bere gain hartzen duten kudeaketaren indarraldia, izaera eta nondik norakoak.

38. artikulua.- Beste erakunde batzuei gomendio uztea.

1.- Aurreko artikuluetan ezarritakoaz gain, zereginak agindu ahal izango zaizkie administrazioaren edo gomendio-uztea egiten duen erakunde publikoaren bitarteko propioak izateko baldintzak betetzen dituzten zuzenbide pribatuko erakundeei, horretarako eskumena duen organoaren aldekarreko ebazpen baten bitartez.

2.- Zuzenbide pribatuko beste pertsona fisiko edo juridikoei ere agindu ahal izango zaizkie zereginak, hitzarmenen bidez; betiere sektore publikoko kontratazioari buruzko oinarriko legeriaren eduki eta mugak errespetatzen badira. Halako lankidetzak-hitzarmenen bitartez, pertsona fisiko edo juridiko pribatu horiei ezin izango zaie agindu jarduera jakin batzuk egiteko. Hain zuzen ere, ezingo dituzte egin indarrean dauden legeen arabera administrazio-zuzenbideari jarraituz betetzekoak diren jarduerak.

III. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaera.

I. kapitulua.- Erakundearen araubide juridikoa.

39. artikulua.- Organismo autonomoak.

1.- Organismo autonomoak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde instituzionalak dira. Izaera publikoa eta Administrazio Orokorretik bereizitako nortasun juridiko dute, modu deszentralizatuan gauzatzen dituzte esleitzen zaizkien zereginak eta zerbitzu publikoak eta administrazio-zuzenbideari jarraituz jarduten dute.

2.- Organismo autonomoek autonomia daukate egozten zaizkien funtzio eta zerbitzuak kudeatzeko; administrazio-ahalak ere erabil ditzakete, jabetza kentzekoak izan ezik. Halaber, diru-sarrera propioak daukate: baimenduta dituzten diru-sarrerak eta aurrekontu orokorretan esleitzen zaizkienak.

40. artikulua.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.

1.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde instituzionalak dira; izaera publikoa dute, eta haiei gomendio uzten zaie zerbitzu publikoak edo kontraprestazioen bat eska dezaketen interes publikoko ondasunak emateko edo kudeatzeko ardura. Administrazio-ahalak erabil ditzakete –jabetza kentzekoak izan ezik–, sortze-arauan halakorik ematen bazaie. Ahalak erakundeko zer organori ematen zaizkion adierazi beharko du erakunde horien sortze-arauak.

2.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak zuzenbide pribatuan oinarritzen dira jarduteko eta hirugarrenekin harremanak izateko. Administrazio-zuzenbidean oinarritzen dira, berriz, administrazioaren ahalak betetzeko, barne-funtzionamendurako eta beren organoen borondatea gauzatzeko; baita lege honetan edo aplikatu behar zaizkien beste lege guztietan ezartzen zaizkien gaitan ere.

3.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoen nortasun juridiko publikoa Administrazio Orokorren nortasun juridiko publikoaren desberdina da. Diru-sarrera propioak dituzte: beren jarduera gauzatzuz lortzen dituzten diru-sarrerak eta aurrekontu orokorretan esleitzen zaizkienak. Bestalde, autonomiaz kudeatzen dituzte egozten zaizkien zereginak, enpresa-kudeaketaren eta helburukako kudeaketaren irizpideak erabiliz eta betiere lege honetan ezarritakoa betez.

4.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoei ematen zaizkien administrazio-ahalak erakunde horietako organoek erabil ditzakete, baina, erabili ahal izateko, berariaz eman behar zaie gaitasun hori haien estatutuetan. Hala ere, lege honen ondorioetarako, administrazio-mailari dagokionez ez dira parekoak zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako organoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoak, estatutuetan ondorio jakin batzuetarako ezartzen diren salbuespen-kasuetan izan ezik.

41. artikulua.- Kapital-sozietateak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak jarduera ekonomikoan parte hartuko du, ondasunak sortuz edo zerbitzuak emanez; horiek, berriz, merkatuan salerosiko dira, ekimen pribatukoak legez. Horretarako, kapital-sozietateak eratuko dira, edo horietan parte hartuko da.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sozietateak kapital-sozietateak dira, eta, haietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Administrazio Instituzionaleko erakundeek edo haien erakunde instrumentalek izaten dute partaidetzarik handiena. Bestalde, zuzenbide publikokoak edo zuzenbide pribatukoak izan daitezke. Erakunde batek sozietate batean partaidetza handiena duen ala ez zehazteko, kontuan hartuko da zenbat partaidetza edo akzio dituen, denak batera hartuta, sozietatearen titulartasuneko kapitalaren adierazgarri.

3.- Aurrekoaren kaltetan izan gabe, lege honetan bildutako xedapenak aplikatuko zaizkie sozietate publiko izan ez baina egoera hauetakoren batean dauden sozietateei:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala edo lege honen bidez arautzen diren haren sektore publikoko gainontzeko erakundeen esku egotea sozietateko boto-eskubide gehienak, zuzenean edo izaera publikoko beste bazkide batzuekin lortutako akordioei esker.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak edo lege honen bidez arautzen diren gainontzeko erakundeek eskubidea izatea sozietateko organoetako kide gehienak izendatzeko edo kentzeko, bai zuzenean bai izaera publikoko beste bazkide batzuekin lortutako akordioei esker.

4.- Ezohikoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren sektore publikoko edozein erakundek kapital-sozietateak eratzea edo horietan parte hartzea. Kapital-sozietateak eratzeke edo horietan parte hartzeke, honako hauek arrazoitzen beharko dira, besteak beste: arrazoi estrategiko erabakigarriak daudela sozietateak jarduten duen sektore ekonomikoarentzat; edo sozietate hori garrantzitsua dela herritarrek ondasun eta zerbitzuak berdintasunez eskuratzea bermatzeko, hainbat arrazoiren ondorioz ekimen pribatuaren eskaintza nahikoa eta egokia ez denean.

5.- Ahal dela, sozietate anonimo edo erantzukizun mugatuko sozietate modura eratu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sozietateak; eta, nolana ere, haiek sortzeko araua baimentzearekin batera eratu dira.

6.- Lege honek ezarritakoari kalterik egin gabe, sozietate publikoek, Euskal Autonomia Erkidegoko ogasun nagusiaren berezko gaiei dagokienez, sozietate publiko diren aldetik espresuki aplikatzen zaizkien xedapenak bete beharko dituzte, eta, xedapen horiekin kontraesanean ez dagoen guztian, baita ordenamendu juridiko pribatuak ezartzen duena ere. Inoiz ezingo dute eduki aginpide publikoaz baliatzeko ahalmenik.

42. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren Administrazio Instituzionaleko erakundeek fundazioak eratu ahal izango dituzte, edo haietan fundatzaile moduan sartu ahal izango dira, ekimen pribatuarekin batera lankidetzan jarduteko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumen-eremuko eta interes orokorreko jardueretan. Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak ezingo du fundazio batean parte hartu, izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoen, inongo sektore publikoak ez direnek, ez badute parte hartzen edo kolaboratzen fundazio horretan, fundazioaren zuzkidurari gehitutako ekarpen ekonomiko baten bidez.

2.- Artikulu honek erreferentzia egiten dien fundazioek erakunde fundatzaileen eskumen-eremuarekin lotutako jarduerak besterik ezin dituzte egin. Gainera, haien helburuak lortzen lagundu beharko dute, baina haien berezko eskumenak beren gain hartu gabe, kontrakoa dioen berariazko lege-aurreikuspenen bat dagoenean izan ezik.

3.- Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak izango dira, baldin eta sektore horri badagokio fundazioko gobernu-organoko kiderik gehienak izendatzea, eta, horrez gain, egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Zuzkiduraren balioaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak jarritakoa izatea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak jartzen dituen ondasun eta eskubideak fundazio-ondarearen balioaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago izatea, modu iraunkorrean.

Egoera horretan, fundazioan, bermatu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak eskubidea duela fundazioaren gobernu-organoko kiderik gehienak izendatzeko.

4.- Aurreko paragrafoko b) idatzi-zatian aipatzen den iraunkortasun hori zehazteko, ondoz ondoko ekitaldi biko inbentarioen balioek emaitza bat ematen dutenean, zeinaren arabera fundazioaren jatorri publikoko ondasunak ondasun guztien ehuneko berrogeita hamar baino txikiagoak diren, fundazioaren gobernu-organon sektore publikoak dituen ordezkariak horren berri eman beharko diote Administrazio Orokorrari, hain zuzen ere fundazioaren atxikipen-organoiari eta ogasun-gaiez arduratzen den sailari, sektore publikotik kanpo geratu dadin fundazio hori, lege honetan ezarritako prozedurari jarraiki.

Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak ez den fundazio bateko ondoz ondoko ekitaldi biren inbentarioek adierazten dutenean fundazio-

ondarearen jatorriaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago dela Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoa, orduan, fundazioa sektore publikoan sartzeko eta artikulua hau betetzen dela bermatzeko, sektore publikoak fundazioaren gobernu-organoan dituen ordezkariak, baldin baditu, edo, bestela, Babesletzak horren berri eman beharko diote ogasun-gaiez arduratzen den sailari.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo haren Administrazio Instituzionaleko erakundeak dagoeneko eratuta dauden fundazioen gobernu-organoetan sartu ahal izango dira, fundazioak sektore publikoan sartu barik, fundazioekin lankidetzan aritzeko bideak eraikitzea bada gobernu-organoetan sartzearen helburua. Nolanahi ere, subjektu publikoak ezingo dute gehiengo osatu fundazioen patronatuetan.

6.- Sektore publikoak kasu bakarrean jardun ahal izango du fundazioen bidez: lortu nahi den helburua eta interes orokorra ezin direnean bermatu lege honetan ezarritako tipologiako beste pertsonifikazio juridikoen bitartez.

7.- Lege honek ezarritakoari kalterik egin gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartutako fundazioek, Euskal Autonomia Erkidegoko ogasun nagusiaren berezko gaiei dagokienez, fundazio diren aldetik espresuki aplikatzen zaizkien xedapenak bete beharko dituzte, eta, xedapen horiekin kontraesanean ez dagoen guztian, baita fundazio-gaietako arautegiak eta, oro har, ordenamendu juridiko pribatuak ezartzen duena ere. Inoiz ezingo dute ahal publikoak erabiltzeko ahalmenik izan, eta haien helburua inoiz ez da izango nahitaezko zerbitzu publikoak ematea.

43. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruan eraturako partzuergoak edo sektore publiko horren partaidetza duten partzuergoak zuzenbide publikoko erakundeak dira, eta ezaugarri hauek dituzte: nortasun juridiko propioa daukate, partaidetza pribatua izan dezakete, haien eskumenen barruan erakunde guztien interes komunekoa jarduerak egiten dituzte, eta administrazio publikoen araubide juridikoari edo toki-araubideari buruzko legerian aurreikusten diren helburu eta baldintzak betetzen dituzte.

2.- Eusko Jaurlaritzak erabaki ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo haren sektore publikoko erakundeek partzuergoak eratzea beste administrazio publiko eta zuzenbide publikoko erakunde eta korporazio batzuekin batera, interes komunak asetzeko; baita irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatu batzuekin ere, baldin eta administrazio publikoen interesekin bat datozen interes publikoko helburuak lortu nahi badituzte. Era berean, Eusko

Jaurlaritzak erabaki ahal izango du Administrazio Orokorrak edo haren organismo publikoek parte hartu behar dutela lehendik sortuta dauden partzuergoetan.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari atxikita dauden partzuergoei indarrean dagoen legeriaren arabera aplikatu behar zaien araubide juridikoa gorabehera, honako baldintzaren bat betetzen duten partzuergoak bakarrik joko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruko partzuergotzat:

a) Sektore publikoak izendatzea partzuergoaren gobernu-organo gehienak.

b) Sektore publikoak ondasunak jartzea, zeinak inbentarioko ondare-balioaren zatirik handiena izango diren, edo zerbitzua emateko edo partzuergoari gomendio utzitako jarduera garatzeko erabiltzen den azpiegituraren baliorik handiena.

c) Partzuergoa eratu edo bertan parte hartu aurreko lankidetzaren-agerian, sektore publikoak onartuta izatea gehienbat berak finantzatuko duela partzuergoa.

4.- Partzuergoetan, aurreko paragrafoko b) eta c) idatzi-zatietan aurreikusitako egoerak gertatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak bermatuta izan beharko du partzuergoko gobernu-organoetako kide gehienak izendatzeko eskubidea.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak partzuergoak eratuko ditu edo haietan parte hartuko du beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan jarduteko zerbitzuak emateko helburu bakarrarekin, baldin eta bataren eta besteen helburuak betetzeko ez badago sinatzerik administrazio-antolamendu edo -egitura berriak ez sortzea eragiten duen lankidetzaren-hitzarmenik. Nolanahi ere, administrazio partzuer guztiek ekarpen ekonomikoak egin beharko dituzte sektore publikoak partzuergo bat eratzeko edo partzuergo batean parte hartzeko.

6.- Partzuergorik eratu aurretik edo partzuergoren batean parte hartu aurretik, interesa duten administrazio guztiek –baita parte hartzen duten partikularrek ere, halakorik badago– hitzarmen bat sinatu beharko dute, non finkatuko baita zein izango den administrazioen arteko lankidetzaren xedea eta finantzazio-araubidea, eta zenbat ordezkari izango dituen administrazio bakoitzak partzuergoaren gobernu-organoan.

7.- Partzuergoak administrazio-zuzenbidean oinarritzen dira, eta administrazio-ahalak erabil ditzakete. Hitzarmenaren xedearen ondorioz, ahal

horiek sortze-arauan gomendio uzten zaizkie partzuergoei, eta arau horretan adierazten da zer organok arduratu behar duen haiek betearazteaz.

8.- Partzuergo bateko kide den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionala edo haren sektore publikoko gainerako erakundeak partzuergotik bereizi daitezke edozein unetan, betiere ez badago jarrita datarik partzuergoaren iraupenari bukaera emateko. Partzuergo batek iraupen jakin bat badu, epe hori bukatu baino lehen bereizi ahal izango dira, baldin eta partzuergoko kideren batek ez badu betetzen estatutuek ezarritako obligazioen bat, eta, batez ere, ez-betetze horren ondorioz partzuergoa sortzeko zeuden helburuak betetzea eragozten bada. Horrelako arrazoi bat izan liteke, esate baterako, ez ekarpenik egitea ondare-funtsari. Euskal Autonomia Erkidego Administrazio Orokor eta Instituzionalak edo haren sektore publikoko erakundeek Jaurlaritzaren akordioa beharko dute parte hartzen duten partzuergotik bereizteko.

II. kapitulua.- Eratzeko, eraldatzeko eta azkentzeko araubidea.

44. artikulua.- Erakundeak eratzeko prozedura orokorra.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ez, beste erakunde batzuk eratzeko, Eusko Legebiltzarraren lege bat edo Eusko Jaurlaritzaren dekretu bat onartu beharko da, hurrengo artikuluetan erakunde-mota bakoitzerako ezartzen denaren arabera. Lege edo dekretu hori, bestalde, batera izapidetu beharko dute, kasu bakoitzean, Administrazio Orokorrean ogasun-gaien eskumenak dituen sailak eta erakundearentzat aurreikusten den Administrazio Orokorreko atxikipen-sailak.

2.- Lege-proiektua edo dekretu-proiektua izapidetzeko prozeduran, derrigorrez egiaztatu beharko dira honako hauek:

- a) Erakunde bat eratu behar dela lortu nahi diren helburu publikoak lortzeko.
- b) Nola egokitzen den erakunde berri hori Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren antolamendu instituzionalaren perspektibatik. Bermatu beharko da ez dagoela edo ez dela errepikatzen inongo organorik, eta, hala badagokio, zer neurri hartzen den lehendik dauden erakundeak berregituratu edo desegiteko.
- c) Lege honetan pertsonifikazio juridikoetarako ezartzen den tipologiatik erakunde berrirako aukeratzen den forma egokia dela erakunde berriak bete behar dituen funtzioetarako edo jarduerarako, eta bat datorrela lege honek forma horri ezartzen dizkion printzipioekin.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak zer prozedura eta teknika erabiliko dituen erakunde berria kontrolatzeko.

e) Erakunde berriaren ekonomia- eta finantza-bideragarritasuna.

3.- Artikulu honetan aipatzen diren erakundeak eratu eta osatzeko, hasierako jarduera-plan bat eduki behar da lehenik eta behin, eta gutxienez alderdi hauek bildu behar ditu plan horrek:

a) Erakundearen xede edo helburuaren adierazpen zehatza: organismo publiko berri bat eratzea justifikatzeko arrazoiak zehaztu behar dira eta organismo horrek izango dituen helburuak adierazi. Bestalde, helburu horiek nahikoak eta egokiak direla justifikatu behar da, bai eta helburuak neurtzeko adierazleak eta haiek lortzeko egingo den urte anitzeko programazio estrategikoa ere. Horretarako erabiliko diren bitarteko ekonomikoak eta langileak ere adierazi beharko dira, eta, langileei dagokienez, zehaztu egin beharko da lanpostuak nola beteko diren, langileak nondik ekarriko diren, kostuak zenbatekoak diren, zein diren ordainsariak eta kalte-ordainak, eta organismoaren jarduera zer denbora-esparrutan garatzea aurreikusten den. Era berean, betetze-mailari lotutako ondorioak ere adierazi beharko dira.

b) Memoria bat, egiaztatzen duena komenigarria eta egokia dela organoa sortzea, haren zereginak bete ditzakeen beste organorik ez dagoelako. Memoria horretan, gainera, egiaztatu behar da organo berria sortuta ez dela bikoiztasunik gertatzen lehendik dagoen beste edozein organo edo erakundek egiten duen jarduerarekin.

c) Erakundearen antolamenduarentzat proposatzen den forma juridikoa, eta antolamendurako baztertu diren aukerako beste forma juridikoak baloratzeko analisia; bai eta proposatutako forma juridikoak Autonomia Erkidegoaren antolamenduan duen eraginaren analisia ere.

d) Aukeratutako antolamendu-egituraren oinarriak: gobernu- edo zuzendaritza-organismoak nahiz organoaren funtzionamendurako aurreikusten diren beharrezko giza baliabideak zehaztu behar dira.

e) Plan estrategikoa: hor zehaztuko dira helburu zehatzak eta jarduera-ildoak.

f) Funtzionatzeko beharko diren giza baliabideen aurreikuspena, funtzio publikoaren arloko eskumena duen saileko titularraren txosten loteslearekin.

g) Funtzionatzeko beharko diren informazio-teknologiaren arloko baliabideen aurreikuspenak.

h) Ekonomia- eta finantza-azterketa, justifikatzen duena aurreikusi den hasierako zuzkidura nahikoa dela jarduerari ekiteko eta, halaber, justifikatzen

duena nahikoa dela zuzkidura hori jarduerak gutxienez eta oro har bost urtez jarraitzea bermatzeko etorkizuneko konpromisoei aurre egiteko. Azterketak, gainera, berariazko erreferentzia egin beharko die gastu eta inbertsioen iturriei eta zuzkidurak Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan izango duen eraginari.

4.- Aurreko idatzi-zatietan aipatutako hasierako jarduera-planak eta ekonomia- eta finantza-azterketak beharrezko izango dute ogasun- eta aurrekontu-gaietako eskumena duen saileko titularraren nahitaezko txostena. Saileko titularrak, bestalde, txosten osagarriak eskatu ahal izango ditu.

5.- Gobernu Kontseiluari dagokio hasierako jarduera-plana, erakundearen ekonomia- eta finantza-azterketa eta lehenengo ekitaldirako aurrekontua onartzeko erabakia hartzea, erakundea atxikiko den saileko titularraren proposamena jaso ondoren. Aldi berean hartu behar dira erabaki hori eta organismo publikoa eratzeko arauaren proiektua onartzeko edo gainerako erakundearen eraketa baimentzeko erabakia.

6.- Jarduera-plana eta urteko planak, bai eta haien aldaketak ere, publiko egingo dira, dagokion organismo publikoaren web orrian.

45. artikulua.- Administrazio Instituzionaleko erakundeak eratzea, eraldatzea eta azkentzea.

1.- Lege bidez eratuko dira organismo autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.

2.- Erakundeak eratzeko prozedura orokorrak ezarritakoa bete ondoren, gutxienezko eduki hau bildu beharko du dagokion erakundea eratzeko lege-proiektuak:

a) Zelan pertsonifikatzen den erakundea, zein izaera juridiko duen, eta Administrazio Orokorreko zein saili atxikitzen zaion.

b) Zein den erakundearen izena eta egoitza.

c) Zer helburu edo interes orokorrerako sortzen den, eta zer eginkizun gomendio utzi zaizkion; beren-beregi adierazi beharko da zer administrazio-ahal bete ditzakeen.

d) Zer gobernu-organo dituen eta zeintzuei gomendio uzten zaizkien kontsulta-funtzioak, halako funtziorik gomendio uzten bazaie, organoak kide bakarrekoak ala anitzekoak diren, nola eratuta dauden, zer prozeduraren bidez izendatzen diren kideak, eta nola banatzen diren eginkizunak kideen artean.

e) Zertan oinarritzen den erakundearen egitura organiko eta administratiboa, eta zeintzuk diren zuzendaritzako postuak. Zehaztu egin beharko da zer eginkizun gomendio uzten zaien postu horiei, eta zein balio juridiko daukaten haien egintza eta ebazpenek; era berean, adierazi beharko da egintza eta ebazpen horietatik zeintzuek agortzen duten administrazio-bidea.

f) Zer araubide juridiko zehatz aplikatu behar zaion ekonomia eta finantzen araubidearekin eta giza baliabideekin lotutako gaietan.

g) Zer langile eta ondare atxikitzen zaion erakundeari, eta zer baliabide ekonomiko dituen funtzioak betetzeko.

h) Zein den erakundea azkentzeko eta likidatzeko prozedura.

3.- Erakundea eratzeke legearen ondoren, erakundearen estatutuak edo antolamendu- eta funtzionamendu-araua onartzen duen dekretu-proiektua izapidetu beharko da. Erakundearen estatutuek helburu bakarra izango dute: aurreko paragrafoan aipatutako edukiak eta eratze-legean aurreikusitako gainontzekoak garatzea, erakundearen antolamendu eta funtzionamenduari dagokionez.

4.- Eratze-legeak aurreikusiz gero erakundeak gobernu- edo kontsulta-organoren bat izan behar duela eta organo horrek kide anitzekoa izan behar duela, estatutuen aurreproiektua informazio eta kontsultapean jarriko da organo horrek lehenengo batzarra egiten duenean, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu baino lehenago.

5.- Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, Eusko Jaurlaritzak emandako dekretu bidez berregituratu daitezke erakundeak, erakunde autonomoak edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, betiere eratze-legean ezarritako izaera eta legezko helburuak aldatu gabe. Eratze-legeak espresuki adieraziko du aukera hori.

6.- Erakundeak lege bidez azkentzeaz gain, Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez ere azkendu ahal izango dira, haiek eratzerakoan jarritako helburuak bete direla egiaztatzen bada edo legean mugatutako eta espresuki aurreikusitako beste edozein arrazoi tarteko bada.

46. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kapital-sozietateak eratzea, eraldatzea eta azkentzea.

1.- Sozietate publikoak eratzeke, Jaurlaritzak dekretuz onartu beharko du haiek sortzea eta Administrazio Orokorrak edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunderen batek partaidetzak eskuratzea.

2.- Baimentze-dekretu horrek bildu beharko du merkataritza-legeriak zer baldintza ezartzen dituen kasuan kasuko sozietate-mota eratzeko. Era berean, Euskadiko ondarea arautzen duen arautegiak ezartzen dituen baldintzak bildu beharko ditu, eta, arautegi horrekin kontraesanean ez dagoen guztian, honako hauek zehaztuko ditu:

- a) Zein den erakundearen izena, sozietate-forma eta egoitza.
- b) Erakundea eratzean, ea bazkide bakarra dagoen edo hainbat partaide, batera biltzen direnak.
- c) Zein den helburu soziala.
- d) Zein den kapital soziala. Adierazi beharko da zenbat partaidetza dauden, zer balio duten eta sektore publikoko zer organo edo erakunderi dagokion bazkide-eskubideez baliatzea.
- e) Administrazio Orokorreko zer saili atxikitzen zaion sozietatea.
- f) Zeintzuk diren sozietatearen gobernu-organoak, administrazio-sistema eta zuzendaritza-postuak. Nolanahi ere, lege honen aurreikuspenak bete beharko dituzte.
- g) Zer ondasun eta eskubide esleitu zaizkion erakundeari helburu soziala lortzeko.
- h) Zer araubide juridiko zehatz aplikatu behar zaion ekonomia eta finantzen araubidearekin eta giza baliabideekin lotutako gaietan.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zer organo edo erakundek duen ahalmena eratze-egintzak gauzatzeko eta onartze-dekretua betearazteko, sozietate-mota bakoitza arautzen duen legeriaren arabera.

3.- Prestatzeko prozeduran, aldi berean izapidetuko dira sozietatea baimentzeko dekretu-proiektua eta haren estatutu-proiektua. Estatutu-proiektuak, berriz, merkataritza-legeriaren arabera dagokion edukia izango du, eta legeria horren arabera onartu eta formalizatuko da.

4.- Sozietatea eratu eta gero, Jaurlaritzaren baimena beharko da artikuluko honetako 2. paragrafoan ezarritako edukiren bati eragiten dioten aldaketak egiteko.

5.- Artikuluko honek erreferentzia egiten dien merkataritza-sozietateak aldatu, bat egin, zatitu edo desegiteko, Gobernu Kontseiluaren baimena behar da, eta hark baimena emateko proposamena ogasun-arloko eskumena duen sailak egin behar du, sail edo erakunde interesdunaren ekimenez, hori dena egin

aurretik merkataritza-legeriaren arabera hartu beharreko sozietate-akordioak hartu ondoren. Sozietatea deseginez gero, Gobernu Kontseiluak erabakiko du zer egin behar den sozietatearen ondasunekin. Merkataritza-sozietate publikoen estatutuetan espresuki adierazi behar da Gobernu Kontseiluaren aldez aurreko baimena behar dela eraldatu, bat-egin, zatitu eta desegiteko.

6.- Nolanahi ere, eratze-eskrituran egiten diren aldaketek eragin handia badute hasierako jarduera-planei dagozkien alderdietan, jarduera-plan berri bat egin beharko da.

7.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo batek edo haren sektore publikoko erakunde batek egin behar du merkataritza-sozietate publikoen likidazioa.

47. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioak eratzea, eraldatzea eta azkentzea.

1.- Jaurlaritzaren baimena beharko da lege honetan ezarritako baldintzen arabera Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartuko den fundazio bat eratzeko; baimen hori, berriz, dekretu bidez emango da.

2.- Fundazioei buruzko legeriak zer ezartzen duen fundazio-borondatea baliozkoa izan dadin, horixe beteko du baimentze-dekretuak. Bestalde, legeria horretan ezartzen diren edukiak izan beharko ditu eratze-eskritura publikoan jasotzeko.

3.- Eduki horiez gain, honako hauek zehaztuko ditu:

- a) Administrazio Orokorreko zer saili atxikitzen zaion fundazioa.
- b) Zer araubide juridiko zehatz aplikatu behar zaion ekonomia eta finantzen araubidearekin eta giza baliabideekin lotutako gaietan.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zer organo edo erakundek duen ahalmena eratze-egintzak gauzatzeko eta onartze-dekretua betearazteko, fundazioen gaineko legeriaren arabera.

4.- Prestatzeko prozeduran, aldi berean izapidetuko dira fundazioa baimentzeko dekretu-proiektua eta haren estatutu-proiektua. Estatutu-proiektuak, berriz, fundazioen gaineko legeriaren arabera dagozkion edukia izango du, eta legeria horren arabera onartu eta formalizatuko da.

5.- Fundazioa eratu eta gero, Jaurlaritzaren baimena beharko da egin nahi diren aldaketak egiteko, aldaketa horiek eragina baldin badute artikulua honetako edukiren batean.

6.- Fundazioa deseginez gero, Gobernu Kontseiluak erabakiko du zer egin behar den fundazioaren ondasunekin. Ondasunak administrazioari bueltatzea erabaki dezake, edo, interes publikoko beste obra batzuetarako erabiltzea, betiere fundazioei buruzko legeriak ezartzen duen eran.

48. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoak eratzea, eraldatzea eta azkentzea.

1.- Jaurlaritzak, dekretu bidez, baimena eman beharko du Administrazio Orokorreko edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein organok hitzarmen bat sinatu eta, horren ondorioz, lege honetan ezarritakoaren arabera sektore publikoan sartuko den administrazio partzuer bat eratzeke obligazioa sortzeko.

2.- Jaurlaritzaren baimena izateko, administrazio partzuerraren araudia jaso beharko du hitzarmen-proposamenak, eta, araudiak, berriz, lege honetan ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du.

3.- Era berean, hitzarmenak adieraziko du zer beste administrazio parte hartuko duen partzuergoan, zeintzuk diren horien hasierako ekarpenak eta zer konpromiso ekonomiko eta finantzario hartzen duten partzuergoa eratu osterako, eta administrazio bakoitzak zenbat ordezkari izango dituen partzuergoaren gobernu-organoan.

4.- Hitzarmena baimentzeko prozedura horretan, partzuergoaren estatutu-proiektua edo antolamendu- eta funtzionamendu-araua ere izapidetuko da. Proiektu edo arau hori gero erakundearen gobernu-organoari proposatu beharko zaio, behin betiko onar dezan. Partzuergo bakoitzaren estatutuetan ezarriko da partzuergoa zein administrazio publikori atxikita egongo den eta zer araubide juridiko, funtzional eta finantzario izango dituen lege honetan aurreikusitakoarekin bat etorritz. Horiez gain, gutxienez honako hauek ere ezarriko dira estatutuetan:

- a) Zein diren partzuergoaren egoitza, xedea, helburuak eta zereginak.
- b) Zeinek parte hartzen duen partzuergoan, eta kide bakoitzak zer ekarpen egiten duen. Horri dagokionez, partzuergoaren jarduerak mugatzeko klausulak jarriko dira estatutuetan, partzuergoko erakundeek finantzaketa-konpromisoak edo bestelako konpromisoak betetzen ez dituztenerako. Halaber, aurrekontuetako jarduerak egiten hasi aurretik partzuergoko erakundeek ezartzen dituzten zenbatekoak segurtatzeko formulak ere ezarriko dira.
- c) Gobernu- eta administrazio-organoak, eta haien osaera eta funtzionamendua. Espresuki adierazi beharko da zein den erabakiak hartzeko araubidea. Botoa emateko edo erabakietan parte hartzeko eskubidea aldi batez

eteteko klausulak sartu ahal izango dira, partzuergoko administrazioek edo erakundeek partzuergoarekiko dituzten obligazioak –batez ere partzuergoaren jarduerak finantzatzeko konpromisoekin lotura dutenak– ez dituztela betetzen agerian geratzen denerako.

d) Desegiteko arrazoiak.

5.- Sinatutako hitzarmena, estatutuak eta egiten diren aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

6.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organo edo erakunderen batek baimena badauka hitzarmena sinatzeko baina aurreikusitako beste administrazioen batek hura sinatzen ez badu edo haren funtsezko elementuak aldatzen badira, erakunde horrek berriro eskatu beharko du baimena partzuergoaren azken osaera eta bereganatzen dituen behin betiko konpromisoak sinatzeko.

7.- Partzuergoa desegiteak hura likidatzea eta azkentzea eragiten du. Partzuergoa sortzeko arrazoi izan ziren helburuak ez badira betetzen, azkendu egingo da partzuergoa.

8.- Partzuergoa likidatzeko erabakia hartzerakoan, likidatzaile bat izendatuko du partzuergoko gobernu-organoren gorenak. Partzuergoa Euskal Autonomia Erkidegoko zer sektore publikori atxikita dagoen, sektore horretako organo edo erakunde bat izango da likidatzailea. Organo edo erakunde likidatzaileak aipatutako administrazio horri lotuta egon behar du, edo haren menpe.

9.- Enplegatu publikoari erakunde edo organo likidatzaileko kide gisa dagokion erantzukizuna zuzenean bere gain hartuko du enplegatu publiko hori izendatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeak. Eta, ondare-erantzukizunaren arloko administrazio-legeetan aurreikusitakoaren arabera dolo, erru edo zabarkeria dagoenean, administrazio horrek ofizioz exijitu ahal izango dio dagokion erantzukizuna enplegatu publikoari.

10.- Partzuergoko kide bakoitzari zer likidazio-kuota dagokion kalkulatu du likidatzaileak, estatutuetan ezarrita dagoenaren arabera. Estatutuetan ez badago aurreikusita hori nola egin behar den, likidazioa egin ondorengo ondare garbitik ateratzen den saldoan kide bakoitzari dagokion partaidetzaren arabera kalkulatu da kuota, kontuan hartuta estatutuetan ezarrita dagoena izango dela banaketa egiteko irizpidea.

11.- Estatutuetan ez badago aurreikuspenik, honako hauek hartuko dira kontuan: partzuergoko kide bakoitzak partzuergoko ondare-funtsari egindako ekarpenen ehunekoa eta urte bakoitzean emandako finantziazioa. Partzuergoko kideren batek ekarpenik ez badu egin, egitera behartuta ez

dagoelako, hauxe izango da banaketa egiteko irizpidea: partzuergoko kide izan den bitartean diru-sarreretatik jasotako partaidetza.

12.- Partzuergoak erabakiko du likidazio-kuota nola eta zer baldintzekin ordaindu behar den, kuota hori positiboa izanez gero.

13.- Partzuergoko erakundeek erabaki dezakete juridikoki egokia den beste erakunde bati lagatzea aktibo eta pasibo guztiak. Estatutuek ezartzen duten gehiengoa beharko da horretarako edo, estatutuetan hori aurreikusita ez badago, denen adostasuna. Likidatu beharreko partzuergoaren jarduerak jarraitzeko eta haren helburuak betetzea lortzeko egingo da lagapena.

IV. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendua eta eraldaketa.

I. kapitulua.- Antolamendua arautzeko eta aldatzeko inguruabarrak.

49. artikulua.- Araubide juridikoa.

Arau hauek bete behar dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek, erakunde-mota bakoitzari aplikatu beharreko berezitasunekin: lege hau, erakunde bakoitzari bere izaera juridikoaren arabera aplikatu beharreko arauak eta Euskal Autonomia Erkidegoko ogasun nagusia eta enplegu publikoa biltzen dituen legezkotasun-blokea osatzen duen arau-multzoa.

50. artikulua.- Beste erakunde batzuetan parte hartzea.

1.- Jadanik eratuta dagoen baina sektore publikokoa ez den beste erakunderen batean parte hartuz gero Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde batek, beste erakunde hori sektore publikoan sartuko da, baldin eta parte-hartzearen ondorioz sortzen den egoera ekonomikoa edo juridikoa halakoa bada, non, erakundea eratzeko momentuan gertatu izan balitz egoera hori, erakundea sektore publikoan sartzea eragingo baitzukeen.

2.- Aurreko paragrafoan azaltzen den egoeran, Jaurlaritzaren baimena beharko da erakunde batean parte hartzeko. Baimen hori dekretuz emango da.

3.- Lege honek zer ezartzen duen erakunde berriak eratu edo baimentzeko, horixe bera bete beharko dute hala baimentze-dekretua izapidetzeko prozedurak nola dekretuaren edukiek, kasuan kasuko pertsonifikazioaren arabera.

4.- Nolanahi ere, prozedura horretan, auditoria bat egingo da erakundearen egoera ekonomiko eta juridikoari buruz eta haren funtzionamendu eta antolamenduari buruz.

5.- Baimentze-dekretuak ezarriko du erakundeak zer epetan egin behar dituen estatutuetako, egitura organikoko eta bestelako egokitzapen eta aldaketak sektore publikoan sartu ahal izateko. Erakundea atxikita geratzen den Administrazio Orokorreko organoak eman beharko dio egokitzapen horien berri ogasun-gaiez arduratzen den sailari.

6.- Administrazio parte-hartzaileek egiten dituzten estatutuek, antolamendu-eta funtzionamendu-arauek edo hitzarmenek, bestalde, zehaztuko dute zer arauk erregulatzen duten ekonomia-finantzen araubide publikoa eta erakunde horretan parte hartzen duten administrazio publikoetatik sortzen den enplegu publikoa. Hori bete beharko dute artikulua honetan azaltzen den egoeran dauden erakunde guztiek.

51. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak ez diren erakundeen finantziaketa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak finantzatzeko badira erakunde horien kapitalean edo ondarean partaide izan gabe, eta sektore publiko horretako aurrekontuetatik datozen laguntza, diru-laguntza edo edozein motatako diru-emateak erabiltzen badira finantzaketa hori egiteko, modu espres eta berezian arrazoitu behar da zergatik finantzatu behar diren erakunde horiek, betiere egoera hauetako bat gertatzen bada:

a) Prozedura publiko baten deialdirik egin gabe egitea finantziaketa, dela Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretako esleipen izendun baten bidez, dela Jaurlaritzaren zuzeneko emakida baten bidez.

b) Erakundearen diru-sarreraren aurrekontuaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago izatea ematen den zenbatekoa.

c) Erakunde berberak bata bestearen segidako aurreko bi ekitaldietan jasotzea laguntza, diru-laguntza edo bestelako diru-emateren bat, aipatutako inguruabarrak errepikatzen direlarik.

2.- Modu espres eta berezian egin beharreko arrazoiketa horretan egiaztatu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruko antolamenduari ezinezkoa zaiola finantzatzeko den helburu publikoa betetzea.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan esleipen izendun gisa sartuta dauden laguntza edo diru-laguntzen kasuan, arrazoiketa aurrekontu orokorren memorian sartuko da, eta, Jaurlaritzaren zuzeneko emakiden kasuan, emakida horien espediente eta erabakietan.

II. kapitulua.- Erakundeen ebaluazioa.

52. artikulua.- Ebaluazio-erregimena.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeei haien sorrera edo parte-hartzea eragin zuten helburu eta xedeen betetze-mailaren ebaluazioa egin behar zaie, bai eta haien jardueran erabilitako baliabideen eta izandako lorpenen arteko harremanaren ebaluazioa ere, lege honek sektore publikoa osatzen duten subjektu gisa jarduteko ezartzen dituen printzipio orokorrak eta erakunde berriak sortzeko edo badaudenetan parte hartzeko ezartzen dituen printzipio aplikagarriak aplikatuz.

2.- Efikazia ekonomikoaren eta efizientiaren ebaluazioa, hasiera batean, erakundearen helburu eta xedeen betetze-maila kontrastatzera bideratuko da, erabiltzen dituen baliabideen, kostu/etekin harremanaren eta erabilitako baliabideen optimizazioaren arabera. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak gauzatuko du ebaluazio hori, bere arautegi espezifikoarekin bat etorritz.

3.- Autoebaluazio-tekniken bidez eta arauz ezartzen denaren arabera ebaluatuko dira efikazia materiala eta sektore publikoko erakundeen jardueraren efikazia –jarduera horrek jomuga duen eremuan eta oro har herritarrengan duen eraginari dagokionez—. Nolanahi ere, herritarrek kanpozerbitzuen prestazioari buruz duten iritzia erantsiko zaio ebaluazioari.

53. artikulua.- Ebaluatzeko prozedura.

1.- Jarraibide hauen arabera egiaztatuko da erakunde bakoitzaren efikazia materialaren eta jardueraren ebaluazioa:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde bakoitzak urtero autoebaluazio-dokumentu bat egin behar du, eta hor sartu beharko du aurreko artikuluan adierazitako alderdiei buruzko informazioa, bai aurreko ekitaldiari dagokiona eta bai indarrean dagoen ekitaldirako aurreikusten duena. Aurreikuspenak, gainera, erakundearen jarduera-eremukoak diren eta erakundearen jardueran garrantzia izango duten hobekuntza, berrikuntza eta egoera espezifikoei egingo die erreferentzia.

b) Erakundean betearazpeneko edo zuzendaritzako goi-mailako zereginak dituen pertsona edo organoak egingo du autoebaluazio-dokumentua, eta bertako organo gorenak balidatuko du.

c) Autoebaluazio-dokumentua atxikipen-sailari igorriko zaio, eta hark egiaztatuko du ea bat datorren bere mendeko erakundeen efikazia eta efizientziarentzat ezarri dituen orientabide orokorrekin. Era berean, Administrazio Publikoaren arloko eskumena duen sailari igorriko dio, jasotako

informazio guztiarekin sektore publikoaren ebaluazio-txosten orokor bat egin dezan.

d) Ebaluazio-txosten orokorra Jaurlaritzaren Kontseiluari helaraziko zaio, onartu dezan eta, beharko balitz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendu eta egiturari buruzko akordioak har ditzan, lege honetan xedatutakoaren arabera.

e) Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Legebiltzarrera bidaliko da txostena, jakinaren gainean egon dadin.

2.- Eusko Jaurlaritzak, modu orokorrean edo espezifikoan, aurreko artikuluan aipatutako printzipioak eta orientabideak garatu ahal izango ditu, eta horien arabera egingo du ebaluazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen efikazia kontrastatzeko alderdiak zabalduz edo zehaztuz. Era berean, bere sektore publikoaren efikazia hobeto eta egokiago ezagutzea bermatzen duten metodoak, prozedurak edo adierazleak ezarri ahal izango ditu. Metodo, prozedura eta adierazle horiek orokorrak izan daitezke, hau da, erakunde guztiei zuzenduta daudenak; edo espezifikoak, izaera juridiko, neurri, jarduera-eremu edo bestelako alderdi garrantzitsuen arabera.

3.- Administrazio Orokorrak sustatuko du atxikipen-sailari eta ebaluazio-txosten orokorra egiten duen sailari Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jardueraren ebaluazio etengabea egitea ahalbidetzen dieten tresnak erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruko erakundeek.

III. kapitulua.- Erakundeak berregituratzea eta azkentzea.

54. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa berregituratzea.

1.- Jaurlaritzak bere erakundeei gomendio ematen zaizkien helburu publikoetara egokituko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendua eta egitura, horiek sinplifikatzeko helburuz. Horretarako, sektore publikoaren antolamendua berregituratuko du, hala eskatzen dutenean lege honek ezarritako printzipioei eutsi beharrak eta efikaziaren, efizientziaren eta lege honek aurreikusitako guztiaren ebaluazioen emaitzek, edo hala eskatzen dutenean lege honek ezartzen dituen printzipio orokorrek, zeinak ezartzen baitira sektore publikoa osatzen duten subjektuek jarduteko eta erakunde berriak sortzeko edo lehendik daudenetan parte hartzeko.

2.- Arauak aldatzeak ekartzen badu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeei esleitutako funtzioak berriro antolatzea, erakunde horien antolamendua ere berregituratu beharko da.

3.- Tipologia edo nortasun juridiko bereko erakundeak berriro egituratzean, tipologia edo nortasun horretako erakunde guztiak sortzeko ezarritako prozedura eta baldintzak bete beharko dira.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen pertsonifikazioa eta izaera juridikoa desberdinak direnean, honako arau hauek bete beharko dira haiek berrantolatzeko:

a) Administrazio Instituzionaleko erakundeak eta erakunde instrumentalak biltzen badira, aipatutako lehenengo erakundeari dagokion nortasun juridikoa jarri beharko zaio sortzen den erakunde berriari.

b) Administrazio Instituzionaleko erakundeak edo hainbat motatako erakunde instrumentalak berregituratzen direnean, lege honek erakunde-mota bakoitzerako definitzen dituen xede eta helburuak betetzen dituen aukeratuko da.

55. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartzea ez dakarren partaidetza.

1.- Erakunde batetik irtetea edo partaidetza murriztea erabakitzeko, Jaurlaritzaren baimena beharko da, baldin eta erakundea sektore publikotik kanpo geratzea eragiten badu erabaki horrek. Baimena dekretu bidez emango du Jaurlaritzak, eta dekretu hori izapidetzeko erabiliko den prozedura erakundeak azkentzeko ezarrita dagoen berbera izango da. Dekretuak, bestalde, hartutako erabakiaren ondorio zehatzak arautuko ditu.

2.- Izaera juridiko pribatuko erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotik kanpo geratuz gero, horrek ez du nahitaez ekarriko erakundea azkentzea; izan ere, aplikatu beharreko legeria beteko da horretarako.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoa ez den erakunde batetik irtetea baimentzen duen dekretuak zehaztuko du, batetik, zer prozedura eta ondorio izango dituen irtete horrek, eta, bestetik, zelan eutsiko zaion erakundean parte-hartzea justifikatzen zuen helburu publikoari.

56. artikulua.- Azkentzea eta sektore publikotik kanpo geratzea.

1.- Jaurlaritzaren dekretu bidez emango da Administrazio Instituzionaleko erakunde bat azkentzeko erabakia edo sektore publikoko erakunde instrumentalak azkentzeko baimena, aplikatu beharreko legeriak ezartzen dituen prozedura eta baldintzen arabera. Dekretu horretan, neurriak arautuko

dira langileen araubideaz, ondareaz, erakundearen eskubide eta betebeharren jarraipenaz eta haren ekonomia eta finantzak likidatzeko betekizunez.

2.- Dekretu hori prestatzeko espedientean, azaldu beharko da zeintzuk diren erakundea azkentzeko arrazoi zehatzak, eta aztertu beharko da zelan eragingo dion Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoari, sektore horrek azkenean izango dituen antolamendu eta egituraren arrazionalizazioari eta koherentziari dagokionez; betiere, bat etorriaz lege honetan ezartzen diren printzipio orokorrekin, hain zuzen ere sektore publikoko subjektu modura jarduteko eta erakunde berriak sortzeko edo lehendik dauden beste batzuetan parte hartzeko printzipio orokorrekin.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeak azkentzeko, subrogazio-printzipioa bete beharko da. Hau da, azkendutako erakundeak garatzen zituen funtzio publikoetan subrogatu beharko da erakundea atxikita zegoen saila.

57. artikulua.- Enpresa-kontzentrazioko sozietateak.

1.- Lege honetan ezartzen den prozeduraren arabera erakundeak eratzeko, Administrazio Orokorrek kapital-sozietate guztiz publikoak eratu ahal izango ditu, akzio-partaidetzen inguruko kudeaketa-lanak sozietate horietan biltzeko helburuz. Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Ondareari buruzko Legearen testu bateginekoko 114. artikuluan aurreikusten dira kudeaketa-lan horiek.

2.- Erakunde horrek, akzioak kudeatzeaz gain, beste zerbitzu batzuk ere eman ahal izango ditu, Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partaidetzen titular diren erakundeentzat komunak izango direnak; horretarako, funtzio horiek berariaz esleitu beharko zaizkio sortze-arauan.

IV. kapitulua.- Administrazio Orokorrekiko harremanak.

58 artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundeen Erregistroa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundeen Erregistroa sortzen da. Bertan, nahitaez inskribatuko dira honako hauek:

a) Sektore publikoko erakunde bakoitzaren eraketa. Halaber, sektore publikoan dagoeneko badauden erakundeak ere inskribatuko dira, erregelamenduz ezartzen den epean.

b) Lege honetan arautzen dena betez, partaidetzaren ondorioz sektore publikokoak izatera pasatzen diren erakundeak.

c) Sektore publikoko erakundeen azkentzeak eta lege honen arabera partaidetza murriztu edo kentzearen ondorioz gertatzen diren sektore publikotik kanpo geratzeak.

d) Erakundeetako gobernu-organoen egitura, antolamendu eta osaeran izaten diren gorabehera, alterazio eta aldaketa guztiak.

2.- Era berean, kasu bakoitzean jaso beharko da zer pertsona fisikok parte hartzen duten erakundearen gobernu-organotan eta administrazioan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin edo sektore publikoko beste edozein erakunderekin dituzten harremanen ondorioz.

3.- Erregistroa publikoa eta informatiboa izango da. Administrazio Orokorreko sail bati atxikiko zaio, zeinak Administrazio Publikoko eskumenak izango baititu, eta baliabide material eta pertsonalak jarriko baititu funtziona dezan.

4.- Erregelamenduz ezarriko da zer eduki izango duten haren erregistro-idazpenek, antolamenduak eta sarbideak, bai eta nola koordinatuko den ere gainerako administrazio-erregistroekin.

5.- Erregistroan inskribatuta dauden Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek erregistroari jakinaraziko dizkiote intzidentziak eta egituran, antolamenduan, gobernu-organoen osaeran eta beste erakunde publiko edo pribatuetan duten partaidetzan egiten dituzten aldaketak; betiere, erregelamenduz ezartzen den moduan.

6.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein erakundetako funtzioak betetzean, pertsona bati lehenengoz deitzen bazaio edozein erakundeko gobernu-organotan edo administraziotan parte hartzeko, izendapena eta kargu horren inskripzioa erregistroan jasoarazi beharko ditu pertsona horrek. Halako daturik jasota ez dagoenean, deitutako pertsonak eskatu egin beharko du inskripzioak erregularizatzeko.

7.- Aurrekontu-egonkortasunaren arloko arautegiaren esparruan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eskumenak emango zaizkio Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren mendeko erakundearen inbentarioari buruzko informazioa edukitzeko eta argitaratzeko, eta artikulua honetan ezarritakoak ez die kalterik egingo eskumen horiei. Horretaz gain, aipatutako informazioan jasoko dira Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartzea eragiten ez duten partaidetzak eta partaidetza horietan gertatzen diren funtsezko gorabeherak.

59. artikulua.- Atxikipena eta gidalerroak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeak beti Administrazio Orokorreko sail bati atxikiko zaizkio, saileko organo jakin baten bidez (sortze-arauak ezarriko du zein den organo hori). Erakundearen zuzendaritza estrategikoa organo horren gain egongo da, eta organo horren bidez gauzatuko dira erakundearen emaitzen ebaluazioa egiteko eta haren efikazia eta efizientzia kontrolatzeko prozedurak aplikatzeko izan beharreko harremanak.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek arau hauek bete behar dituzte beren helburuak betetzeko eta jarduerak gauzatzeko lanean ari direnean:

a) Eusko Jaurlaritzak plangintzarako eta politika orokorrerako ematen dituen jarraibideak,

b) atxikita dauden sailak ezartzen dituen arauak, lege honen arabera sailaren esku baitago erakundearen goi-zuzendaritza eta ikuskapena,

c) ogasun orokorraren eta enplegu publikoaren arloko eskumena duten Administrazio Orokorreko organoetatik datozen arauetatik erakundeei aplikatu beharrekoak diren alderdiak.

3.- Administrazio Orokorren eta sektore publikoko erakundeen arteko harreman ekonomikoak finantzaketarako programa-kontratu edo esparru-kontratu egonkorren bidez arautu ahal izango dira. Kontratu horietan, honako hauek adieraziko dira, gutxienez:

a) erakundearen helburuak,

b) helburuen kostu zenbatetsia,

c) administrazioak egindako finantzaketa, eta

d) finantzaketa horren eta helburuak betetzearen arteko lotura.

60. artikulua.- Egintzak eta errekurtsioak.

1.- Dagokion legeria orokorrean ezarritako administrazio-errekurtsioak jarri ahal izango zaizkie organismo autonomoen eta partzuergoen egintza eta ebazpenei. Berdin gertutako da zuzenbide pribatuko erakunde publikoek emandako egintza eta ebazpenekin ere, administrazio-zuzenbidearen mende jardun direnean.

2.- Aurreko zenbakian aipatutako erakunde horietako gobernu-organorenari dagokio gai zibiletan eta lan-arloko gaietan jarritako aurretiazko

erreklamazioak ebaztea eta berak edo erakundearen mendeko organoek emandako egintzak ofizioz berrikustea.

3.- Gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten izaera juridiko pribatuko erakundeek diru-laguntzetarako deialdien oinarriak onartzeko hartzen dituzten behin betiko erabakien aurka, bai eta aurrekontu publikoetatik datozen edo jatorria haietan daukaten laguntzak, diru-laguntzak edo kontraprestaziorik gabeko bestelako diru-emateak egiteko hartzen dituzten behin betiko erabakien aurka ere. Laguntza erregulatzen duen arauak edo programak identifikatuko du erakundeko organoaren zein erabaki edo ebazpenen aurka jar daitekeen gora jotzeko errekurtsua, eta errekurtsu hori jartzeko aukera eskaini beharko zaie interesdunei erabaki edo ebazpenaren jakinarazpenean, administrazio-prozedura arautzen duen legeriak ezartzen duen eran.

4.- Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten izaera juridiko pribatuko erakundeek hartzen dituzten behin betiko erabakien aurkako gora jotzeko errekurtsua ere jarri ahal izango da, erabaki horiek ordenamendu juridiko administratiboko lege baten arabera hartzen badira, lege horrek erabakia bere aplikazio-esparrura ekartzen badu, eta betiere bertan ez bada kasu horretarako beste administrazio-errekurtsorik arautzen.

5.- Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako kasuetan, izaera juridiko pribatuko erakundearen eraketa-arauaren bidez, izaera juridiko pribatuko erakundea atxikita dagoen Administrazio Orokorreko saileko titularrari eman ahal izango zaio erakundearen behin betiko erabakien aurka jarritako gora jotzeko errekurtsuak ebazteko eta haren egintzak ofizioz berrikusteko ahalmena.

61. artikulua.- Gobernu-organoetako ordezkariak.

1.- Lege honek adierazitako jarraibide eta gidalerroen derrigortasunaren kaltetan izan gabe, Administrazio Orokorra egingo du bere sektore publikoa osatzen duten erakundeen benetako kontrola, erakundeen gobernu-organoetan berak dauzkan ordezkarien bidez.

2.- Erakundeetako gobernu-organoetan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren ordezkari izateko izendatzen diren kideek interes orokorra eta erakundea eratzea edo bertako partaide izatea justifikatu zuen xede publikoa defendatzen dute.

3.- Administrazio Orokorra gobernu-organoetan izan beharreko ordezkariak bere partaidetza ekonomikoarekiko proportzionala izango da; hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetan derrigorrezkoa izango da ordezkari gehienak Administrazio Orokorrekoak izatea.

4.- Administrazio Orokorreko zerbitzu juridiko zentralek idazkaritza-lanak egin ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako kide anitzeko gobernu-organoetan eta erakunde horiei lege-aholkularitza eman ahal izango diete, erakundeak eratzeko eta antolatzeko arauarengatik edo erakundearen forma edo izaera juridikoa direla-eta aplikatu beharreko legeriarengatik zeregin horiek beharrezkoak baldin badira.

62. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak merkataritza-sozietate publikoetako administrazio-kontseiluetarako izendatzen dituen kideei aplikatu beharreko erantzukizun-erregimena.

1.- Enplegatu publikoari administrazio-kontseilu edo organo likidatzaile bateko kide gisa dagokion erantzukizuna zuzenean bere gain hartuko du kide hura izendatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, hark ere erantzukizuna izan dezakeela alde batera utzi gabe.

2.- Administrazio-legeetan aurreikusitakoaren arabera dolo, erru edo zabarkeria dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ofizioz eska diezaioke administrazio-kontseiluko kide izateko izendatu zuen enplegatu publikoari sozietatearen ondasun eta eskubideetan eragindako kalte-galerengatik dagokion erantzukizuna.

63. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sozietate publikoen atxikipena eta babesa.

1.- Jaurlaritzaren Kontseiluak merkataritza-sozietate publikoen eraketa baimentzeko hartzen duen erabakian ezarriko da sozietate horiek Autonomia Erkidegoko zer saili atxikita egongo diren babes funtzionalari dagokionez, betiere kalterik egin gabe ogasun eta Administrazio Publikoko gaietan eskumena duten sailek egiten duten kontrolari. Ez da berariazko erabakirik behar enpresa-ondarearen berregituraketa-prozesuen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko ondare-legerian aurreikusitako moduan gertatzen diren atxikipen-aldaketak egiteko.

2.- Merkataritza-sozietate publikoa atxikita dagoen eta funtzionalki hura babesten duen sailak kontrolatuko du atxikita duen merkataritza-sozietate publikoaren eraginkortasuna, betiere kalterik egin gabe ogasun-arloko eskumena duen sailaren eskudantziei. Babesa zuzenean ematen duen saileko titularrarena edo babesa ematen duen erakundea atxikita dagoen saileko titularrarena da arlo honetan egiten diren jardueren berri Eusko Legebiltzarrari emateko ardura.

V. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamendua, herritarren zerbitzura jarduteko.

I. kapitulua.- Xedapen orokorrak.

64. artikulua.- Funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak herritarren zerbitzura egoteari begira jardungo du. Funtzionatzeko printzipio gidari hori gauzatzeko, printzipio hauek aplikatu beharko ditu, administrazio publiko guztientzat aplikazio orokorrekoa den arautegiko printzipioez gain:

a) Legitimitate demokratikoa: bere izateko arrazoia herritarrak dira eta, horregatik, herritarren beharrianak antzeman, hartu eta asetzerara bideratzen du bere jardura publikoa.

b) Iraunkortasuna: iraunkortasunean oinarrituz, aurrerapen soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa lortzera bideratu beharko du bere jarduna.

c) Aurrea hartzea: ahal duen heinean, herritarren arazoei eta eskaerei aurrea hartu behar die, bai politikak taxutzerakoan eta bai herritarren beharrei erantzuna ematerakoan.

d) Hizkuntza-normalkuntza: euskararen erabileraren normalkuntza bultzatuko du administrazio-jardueran.

e) Politika eta zerbitzuen programazioa, plangintza, kontrola eta ebaluazioa: tresna egoki eta nahikoak sortuko ditu programazio-prozesuak, politiken plangintza, emaitzen ebaluazioa eta kontrola, eta ondoren herritarrei horren guztiaren berri ematea txukun egingo direla bermatzeko.

f) Kudeaketarekiko ardura: bere politika eta zerbitzuen emaitzak ebaluatuko ditu, kudeaketaren kalitatea bermatzen duten adierazle objektibo neurgarrien arabera.

g) Koherentzia: etengabe, benetan eta egonkortasunez emango ditu zerbitzuak, herritarrek ezagutzen eta onartzen dituzten egoerak beharrik gabe apurtu edo aldatu gabe.

h) Parte-hartzea eta lankidetzeta: bere politikak taxutzerakoan eta bere zerbitzuak kudeatzerakoan, herritarrei bermatu egingo die indibidualki nahiz kolektiboki gai publikoetan parte hartzeko, lankidetzan aritzeko eta inplikatzeko aukera, genero-berdintasunaren ikuspegia txertatuz eta, oro har, pertsonen edo kolektiboen heterogeneotasuna kontuan hartzen duen ikuspuntu inklusiboa bultzatuz.

i) Gardentasuna: gardentasunez jardungo du, eta hartzen dituen erabakiei eta erabakien erantzuleei, erabaki horien deliberazio-prozesuei eta zerbitzuen antolamenduari buruzko informazio garrantzitsua ezagutu ahal izango dute herritarrek.

j) Publikotasun aktiboa: aldizka eguneratu eta publiko egingo du informazioa, gardentasuna bermatzeko.

k) Soiltasuna eta ulergarritasuna: izapideen konplexutasuna gutxituko du, eta arau eta prozedura argi eta errazak edukitzeko bidea emango du, administrazioa herritar guztiengana iristea ahalbidetzen duen hizkera ulergarria erabiliz.

l) Berrikuntza publikoa: mekanismo eta prozedura berritzaileak bultzatuko ditu, batez ere teknologia berriak erabiliz eta horien funtzionamendua eta egitura etengabe beharizan berrietara egokituz.

m) Etengabeko hobekuntza: etengabeko ebaluazioko prozesuak erabiliko ditu, gabeziak antzeman eta konpontzeko eta, horrela, herritarrei zerbitzu eraginkorrak emateko.

65. artikulua.- Herritarren eskubideak eta betebeharrak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekiko harremanetan, lege honek ezarritako eskubide eta betebeharrak dituzte herritarrek, estatuko oinarritzko legeriak eta Europar Batasuneko legeriak aitortzen dizkieten eskubide eta betebeharez gain.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako moduan eta aurreko artikuluan bildutako printzipioen ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek administrazio onerako eskubidea dute.

3.- Lege honen arabera, honako hauek sartzen dira administrazio onerako eskubidearen barruan:

a) Herritarren auziak inpartzialtasunez, zuzen eta arrazoizko epe baten barruan tratatuak izateko eskubidea eta, atzerapen saihetsezinen bat gertatuz gero, horren arrazoiak jakitekoa.

b) Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, lege honek ezartzen duen baldintzetan.

c) Herritarrei eragiten dien edozein neurri indibiduali dagokionez, aurretiazko entzunaldirako eskubidea, administrazio-prozedura erkidearen arauak ezarritakoarekin bat etorrituz.

d) Egiazko eta kalitatezko informazio publikorako eskubidea, hor sartzen direlarik lege honek ezarritako baldintzetan Administrazio Publikoaren artxibo eta erregistroetarako irispidea eta herritarrari eragiten dion espedientea eskuratzeko aukera, betiere konfidentziasunaren, herritarraren datu pertsonalen eta lanbideko eta merkataritzako sekretuaren interes legitimoak errespetatuz.

e) Erabaki publikoak arrazoituak izateko eskubidea eta, bereziki, herritarraren interesei eragiten dieten erabaki publikoak arrazoituak izateko eskubidea, prozedura-legeetan aurreikusten den eran.

f) Administrazioak edo haren erakunde instituzional edo instrumentalek haien jardunean eragindako kalteen konponketarako eskubidea, administrazioaren ondare-erantzukizunaren arloko indarreko legeek aurreikusitakoaren arabera.

g) Herritarrek euskal sektore publikoa osatzen duten subjektuekin dauzkaten harremanetan hizkuntza-koofizialtasuna izateko eskubidea, indarrean dagoen arautegiaren arabera.

h) Legeek herritarrei Administrazio Publikoarekiko harremanetarako aitortzen dizkieten eskubideen defentsarako eskubidea, dagozkion baliabideen bidez.

i) Administrazio Publikoaren izapideak eta prozedurak sinpleak izateko eskubidea eta prozedurei aplikatu beharreko arauetan exijitzen ez diren dokumentuak edo dagoeneko Administrazio Publikoaren eskuetan daudenak ez aurkezteko eskubidea.

j) Kalitatezko zerbitzu publikoak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko eskubidea. Zerbitzu horiek atentzio egokia bermatuko dute eta, horrez gain, etenik egin gabe eta etengabe ebaluatzeko moduan emango dira.

k) Eskakerak, iradokizunak, esker-emateak edo kexak administrazioak jarritako bide, bitarteko edo tresnen bidez egiteko eskubidea -eta, hala badagokio, eskatzeko eskubidearen erregulazio organikoaren arabera-.

l) Zerbitzua zein agintaritzan edo langileren erantzukizunpean ematen den jakiteko eskubidea.

m) Administrazio publikoek emandako zerbitzuei dagokienez, herritarrek zein eskubide eta betebeharrak dauzkaten jakiteko eskubidea, eta eskubideak benetan erabiltzeko eta zerbitzu publiko horiek behar bezala jasotzeko aholkularitza eta, behar izanez gero, laguntza ere jasotzeko eskubidea, alde batera utzita enpresa edo pertsona partikularrek, modu profesionalean, gai horri buruz eman dezaketen aholkularitza.

4.- Eskubide horiek obligazioak ezartzen dizkiete Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiei. Alabaina, eskubide horiek ez dira aplikagarriak herritarrek zuzenbide pribatuko harremanak dituztenean izaera horretako erakundeekin, Zuzenbide pribatuko harreman horiekin bateraezinak diren eskubideak direnean.

5.- Aurreko artikuluan bildutako printzipioen ondorioz, betebeharrak hauek dituzte herritarrek:

a) Administrazio langileekin eta eraikin publikoetan une bakoitzean dauden gainontzeko erabiltzaileekin errespetuzko jarrera izateko betebeharra.

b) Instalazio, espazio eta ekipamendu publikoak zaintzeko betebeharra.

c) Administrazio langileekin lankidetzazko jarrera izateko betebeharra. Hortaz, kasu bakoitza behar bezala ebazteko behar diren identifikazio-datuak edo dena delako gaiari buruzko edukia ematerakoan, egiazko datuak, zehatzak, argiak eta irakurterazak emango dituzte.

d) Eskerak, iradokizunak, kexak edo esker-emateak egiteko administrazioak jartzen dituen bide, bitarteko eta tresnak behar bezala erabiltzeko eta halakoetan behar diren harremanetarako datu guztiak emateko betebeharra.

e) Administrazioarekin izandako komunikazio eta harreman elektronikoaren bidez lortzen den informazioa behar bezala erabiltzeko betebeharra; eta, bereziki, legitimoki eskuratzen den administrazio-informazioaren eskakizun juridikoak errespetatzeko betebeharra, informazioaren erabileran desbideratu gabe, batez ere datu pertsonalen eta jabetza intelektual eta industrialaren babesari dagokionez.

II. kapitulua.- Kudeaketa- eta ebaluazio-sistemak.

66. artikulua.- Kudeaketa publiko aurreratuko sistemak ezartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bere antolamenduaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren efikazia eta efizientzia bultzatuko du, gizartearentzat balio publikoa sortzen laguntzen duten kudeaketa publiko aurreratuko sistemen ezarpena orokortuz. Horretarako:

a) Plangintza estrategiko eta operatiboak egin beharko dira. Plangintza horiek argi eta garbi adierazi behar dituzte erronka dakarten baina lorgarriak diren helburuak, eta segimendu eta ebaluaziorako adierazleak eduki beharko dituzte, arduradun politiko eta teknikoek erabakiak egintzekin eta datuekin hartu ahal izateko.

b) Zerbitzuek herritarrei eta hartzailezat dituzten pertsona eta erakundeei behar bezala erantzuteko, zehaztu egin beharko da zerbitzu horiek nola garatuko eta kudeatuko diren prozesuen bidez. Horretarako, herritarrek izan ohi dituzten beharrizanak eta zer espero duten identifikatu behar da, haien kexa eta iradokizunei erantzun behar zaie, haien eskaerei erantzun egokia eman behar zaie, haien ikuspegia sartu behar da eskainitako politika eta zerbitzuen hobekuntzan, eta haien parte-hartze aktiborako mekanismoak bultzatu behar dira.

c) Enplegatu publikoei kudeaketan parte hartzeko adorea ematen dieten tresnak ezarri behar dira, haien konpromisoa indartzeko baldintzak sortuz eta liderren jokabidea eta gaitasunak zehaztuz.

d) Erronka publiko berriei erantzun eta proposamen berritzaileekin aurre egiten laguntzeko truke- eta ikaskuntza-testuinguruak sortu behar dira, erakundeko eta kanpoko beste talde interesgarrietako pertsonen sormena sartuz, berrikuntza etengabea eta sistematikoa izan dadin.

e) Agente anitzeko kontzertaziorako bideak jarri behar dira, agenteen artean herritarrak ere sartuz. Aliantzak sortzen eta ekimen publikoa eta pribatua inplikatzeko lagundu behar du horrek, gure gizartearen beharrizanak eta arazo konplexuei erantzuteko eta oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat aukerak sortzeko daukagun gaitasuna handitzeko.

f) Mekanismoak jarri behar dira emaitzak ebaluatzeko eta emaitza esanguratsuenak modu eskuragarrian argitaratzeko eta, horretaz gain, herritarrek emaitza horietaz duten pertzepzioa sartzeko aurreikuspena egin behar da.

67. artikulua. Antolamendu-unitateen kudeaketaren ebaluazioa.

1.- Antolamendu-unitateen jardura ebaluatuko da, kudeaketa publiko aurreratuko sistemen ezarpen-maila ezagutzeko eta, bereziki, zehaztutako politika publikoekin zenbateraino lerrotatzen diren eta herritarrek eta zerbitzuen beste erabiltzaile posibleek unitate horien jarduerarekiko eta kudeaketarekiko duten gogobetetasun-maila zein den jakiteko.

2.- Unitateen jardura baloratzea eta hobetu daitezkeen alorrak antzematea izango da ebaluazioaren helburua, unitateak hurrengo hobetze-planetan konprometitu ahal izan daitezen.

3.- Ebaluazioa egiteko, unitateen arteko konparazioa ahalbidetzen duten eta haien bilakaera errazten duten ereduak erabiliko dira.

4.- Gardentasuna eta etengabeko hobekuntza lortzeko, herritarrei zerbitzuak edo zuzeneko prestazioak ematen dizkieten administrazio-unitateek zerbitzu-mailako konpromisoak landu eta argitaratuko dituzte, eta horietan bilduko dituzte politika jakinen edo horien hedapenaren arabera erabiltzaile-talde jakinei dagozkien eskubide guztiak.

III. kapitulua.- Administrazio Elektronikoa eta herritarrentzako arreta.

68. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Elektronikoa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten instituzio eta erakundeek bitarteko elektronikoen erabilera ezarriko dute zerbitzuak emateko, komunikazioetarako eta herritarrekin dauzkaten harremanetarako, bai eta barne-komunikazioetarako eta beste administrazio publiko edo instituzioekin dituzten komunikazioetarako ere.

Ondorengo artikuluan aipatzen diren printzipioak eta herritarrak zerbitzu publikoetara baliabide elektronikoz iristeko oinarrizko arauak errespetatuko dituzte aipatutako organismo eta erakundeek beren jarduera elektronikotan.

Printzipio horien eraginkortasuna eta herritarren eskubideekiko errespetua bermatzeko, Administrazio Elektronikoa funtzionamendua kontrolatzen duten bitartekoak jarriko dira.

2.- Administrazio Elektronikoa ezarpenari buruzko txosten bat egingo du, urtero, zerbitzu publikoen antolamendu eta kalitatearen inguruko eskumena duen sailak, eta, erabiltzaileek egindako kexa eta iradokizunen analisisa bilduko du txosten horrek, beste gai batzuen artean. Txostena Eusko Jaurlaritzara bidaliko da, han aztertu eta ondoren Eusko Legebiltzarrera igortzeko.

69. artikulua.- Administrazio Elektronikoa printzipioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jardueretan eta herritarrekiko nahiz beste administrazioekiko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzeko, ordenamendu juridikoak ezartzen dituen mugak bete beharko dira, hango printzipio orokorrei uneoro men eginez, eta, bestalde, herritarrek aitortuta dituzten eskubideen erabilera osoa errespetatu beharko da eta printzipio hauei jarraitu beharko zaie:

a) Berdintasun-printzipioa: baliabide elektronikoa erabiltzeak ez diezaien inolako murrizketarik edo diskriminaziorik eragin Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin harremana izateko bitarteko ez-elektronikoa hautatzen dituzten herritarrei. Nolanahi ere, ez zaie kalterik egingo bitarteko elektronikoen erabilera sustatzeko neurriei.

b) Informaziora eta zerbitzuetara bitarteko elektronikoen bidez iritsi ahal izateko printzipioa, arlo honetan indarrean dagoen legeriak xedatutakoaren arabera: horretarako erabiltzen diren sistemek bide eman behar dute informazioa eta zerbitzuak modu seguruan eta ulergarrian eskuratzeko. Bereziki bermatu behar dute pertsona guztiek izan dezatela informazio eta zerbitzu horietara iristeko modua, eta euskarri tekniko, kanal eta ingurune guztietarako diseinatuta egon daitezela, hain zuzen ere pertsona guztiek izan dezaten beren eskubideak berdintasunez baliatzeko modua. Hortaz, kolektibo guztiak informaziora bitarteko elektronikoen bidez iristeko behar diren baliabideak jarriko dira, erabiltzaileak horrelako tresnen erabileran trebatzeko prestakuntzaren sustapena barne.

c) Legezotasun-printzipioa: herritarrek berme juridiko guztiak izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin dauzkaten harreman elektronikoetan.

d) Lankidetzaren printzipioa: bitarteko elektronikoak erabiltzeko garaian, lankidetzan aritu behar da gainerako administrazio publikoekin, eta, batez ere euskal foru- eta toki-erakundeekin. Batzuen eta besteen sistemek eta soluzio teknikoek elkarrekin eragiteko modukoak izan behar dute, eta, hala behar denean, gai izan behar dute herritarrei zerbitzuak elkarrekin emateko.

e) Segurtasun-printzipioa: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak printzipio horri jarraitu behar dio bitarteko elektronikoak ezarri eta erabiltzeko orduan. Horri dagokionez, bitarteko ez-elektronikoen erabilerarako eskatzen den berme- eta segurtasun-maila bera eskatuko da, gutxienez.

f) Proporzionaltasun-printzipioa: izapide edo jardueri ezarritako berme eta segurtasun-neurriak izapide edo jarduera horien izaera eta ezaugarrien arabera izango dira, ez gehiago. Horrez gain, izapide edo jardueraren xedea betetzeko guztiz beharrezkoak diren datuak baino ez zaizkie eskatuko herritarrei.

g) Sinplifikazio-printzipioa: bitarteko elektronikoak aplikatuz, sinpleak izango dira izapideak eta prozedurak.

h) Komunikazio elektronikoen teknika eta sistemak aurrerapenera moldatzearen eta neutraltasun teknologikoaren printzipioa: herritarrek eta administrazioak askatasuna izan behar dute nahi duten aukera teknologiko, aplikazio edo sistema hautatzeko, eta, era berean, merkatu librean azaltzen diren aurrerapen teknikoak askatasunez garatzeko eta ezartzeko. Hori dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak estandar irekiak erabiliko ditu, edota, hala dagokionean eta horien osagarri, herritarren artean zabalduenak daudenak.

i) Informazio publikoa eta software publikoa berrerabiltzeko printzipioa: Administrazio Publikoak horiek eskueran jarrita, beste agente batzuek tresna, produktu edo zerbitzu berriak sortzea da honen helburua.

j) Erantzukizun- eta kalitate-printzipioa, bitarteko elektronikoen bidez emandako informazio eta zerbitzuen egiazkotasunari dagokionez.

k) Prozeduren gardentasun eta publikotasunaren printzipioa: bitarteko elektronikoa erabiliz, agente publikoen jarduna ahalik eta gehien hedatzea, ahalik eta publikoen bihurtzea eta ahalik eta gardenena izatea lortu behar da.

l) Datu pertsonalak babesteko printzipioa: Administrazio Elektronikoen erabilera eta garapenaren ondorioz sortutako datu pertsonalen fitxategi guztiek bete behar dute datu pertsonalak babesteari buruzko legeria.

m) Doakotasun-printzipioa: Administrazio Elektronikoa ez die inolako gainkosturik eragingo erabiltzaileei.

70. artikulua.- Administrazio Elektronikoen arloko eskubideak.

1.- Herritar guztiek eskubidea dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeekin izan behar dituzten harremanak bitarteko elektronikoz bideratzeko, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluan jasotako eskubideak baliatzerakoan, bai eta informazioa eskuratzerakoan, kontsultak edo alegazioak egiterakoan, eskabideak eta uziak aurkezterakoan, norberaren adostasuna adierazterakoan, ordainketak egiterakoan, transakzioak egiterakoan eta administrazioaren ebazpenen eta egintzen aurka jotzerakoan ere.

2.- Bereziki eskubide hauek izango dituzte aipatutako bitarteko elektronikoa erabiliz Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin izaten dituzten harremanei dagokienez:

a) Une bakoitzean harremanetarako erabilgarri dauden kanalen artetik nahi dutena aukeratzeko eskubidea.

b) Berdintasunerako eskubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuetara baliabide elektronikoz iristeko orduan.

c) Identifikazio elektronikorako behar diren bitartekoak eskuratzeko eskubidea: pertsona fisikoek NANaren sinadura elektronikoko sistemak erabili ahal izango dituzte edozein izapide elektronikoa egiteko.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan onartuta dauden sinadura elektronikoko beste sistema batzuk erabiltzeko eskubidea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren fitxategi, sistema edo aplikazioetan jasotako datuak isilpean eta seguru gordeko diren bermea edukitzeko eskubidea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekiko harremanetarako nahi duten aplikazioa edo sistema aukeratzeko eskubidea, betiere estandar irekiak erabiltzen badituzte, edo, bestela, herritarren artean zabalduen daudenak. Administrazioak, nolana ere, aplikazioen malgutasuna eta bateragarritasuna bilatuko du.

g) Administrazio publikoen esku dauden datu eta dokumentuak ez aurkezteko eskubidea, indarrean dagoen arautegiaren arabera administrazio publikoek aukera baitaude datu eta dokumentuak horiek gordeta dituen administraziotan eskuratzeko.

h) Norberaren intereseko prozeduren izapidetze-egoera bitarteko elektronikoen bidez ezagutzeko eskubidea, arautegiak baimentzen duenean.

i) Norberaren intereseko prozeduretako dokumentu elektronikoen kopia bat izateko eskubidea, edozein espediente osatzen duten dokumentu elektronikoak euskarri elektronikoan gordetze aldera.

3.- Gainera, zerbitzu-jarduera baterako irispidea izateko eta zerbitzu horretan jarduteko prozeduretan, interesdun guztiek eskubidea dute izapideak leihatila bakarraren bidez egiteko, bide elektronikoz eta urrunetik. Horrez gain, eskubidea dute ondoren aipatzen den informazioa bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko (informazio horrek argia eta zalantzarik gabea izan beharko du):

a) Zerbitzu-emaileei aplikagarriak zaizkien betekizunak, batez ere zerbitzu-jardueretarako irispidea izateko eta horietan jarduteko behar diren prozedura eta izapideei buruzkoak.

b) Zerbitzu-jarduerekin zerikusia duten arloetan eskumena duten agintarien datuak, bai eta zerbitzu-emaileek eta hartzailleek sorospen edo laguntza jasotzeko erabil ditzaketen elkarte eta erakunde ez-eskudunen datuak ere.

c) Zerbitzu-jarduerak ematen dituztenen erregistro eta datu-base publikoetara iristeko bitartekoak eta baldintzak.

d) Zerbitzu-ematean izandako gorabeheren konponketarako erreklamazioak eta errekursoak jartzeko bideak.

4.- Bitarteko elektronikoen erabileran, arau hauek ezarritakoa bete beharko da: herritarrek zerbitzu publikoetarako irispide elektronikoa izateari buruzko oinarritzko legeria aplikagarria, lege hau, eta honekin bat datorren edo hau garatzen duen gainontzeko euskal araudia.

71. artikulua.- Administrazio Elektronikoko ereduak Euskal Autonomia Erkidegoan izango duen garapena.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten instituzio eta erakundeei dagokie Administrazio Elektronikoko ereduaren garatzea, beren araubide juridikoak ezartzen dituen lotura- eta menpekotasun-harremanekin bat etorriz.

2.- Administrazio Elektronikoko ereduaren garatzeko, jarduerak hauek gauzatu beharko dira:

a) Herritarrekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin izan beharreko harremanetan bitarteko elektronikoen erabilera sustatzeko estrategiak definitzea.

b) Aplikazio, prozedura eta tresnak diseinatu, ezarri eta garatzea, herritarrekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeekin izan beharreko harremanetan bitarteko elektronikoen erabilera errazteko, eta, bestalde, beste aplikazioekin elkarrengarritasuna lortzeko eta aipatutako aplikazio, prozedura eta tresna horiek berrerabiltzeko.

c) Herritarrekin izan beharreko harremanetan bitarteko elektronikoen erabilera sustatzea.

d) Administrazio publikoen komunikazio-sare elektronikoen sustatu, finkatu eta bultzatzea.

72. artikulua.- Parte-hartze publikoa bitarteko elektronikoen bidez gauzatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten instituzio eta erakundeek bermatu eta bateragarri egingo dute bitarteko elektronikoen erabilera, herritarrek eta enpresek administrazio-jardueran eta xedapen orokorren prestaketako informazio publikoaren izapideetan duten parte-hartzea bideratzeko, euskal sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartzea eta gobernu onari buruzko gure lege propioak xedatzen duenaren arabera.

Era berean, herritarrekin eta enpresekin interakzioan aritzea ahalbidetzen duten mekanismo elektronikoen sortu eta erabiltzea bultzatu behar dute, sortzen diren gaietan haiek duten iritzia ezagutzeko eta garatzen dituzten jardueretan txertatzeko.

73. artikulua.- Prozedura administratiboak sinplifikatzea, zerbitzu eta kanal elektronikoen bidez.

1.- Administrazio-izapideak sinplifikatzeko eta herritarrek administrazio publikoen eskuetan dauden datu eta dokumentuak ez aurkezteko duten eskubidea bermatzeko, ez da interesdunen adostasunik eskatuko administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, beren berezko funtzioak betetzen ari direla,

a) eskatzen duten informazioa betekizuntzat azaltzen denean administrazio-prozedura erregulatzen duen arauan,

b) administrazio-prozedura alderdiren baten eskariz hasten denean (orduan interesdunaren eskaera egongo delako),

c) informazio hori eskuragarri dagoenean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean edo administrazioen arteko elkarreragingarritasunerako zerbitzuetan, eta

d) babes berezia behar duten datu pertsonalei buruzko informazioa ez denean.

2.- Administrazio-prozedurak erregulatzeko arauetan aurreikusten den kasuetan, elektronikoki aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenaren edo aldez aurreko jakinarazpenen bidez justifikatu ahal izango da baldintzak betetzen direla. Dagokion legeriak kasu bakoitzerako ezartzen dituen ondorioak izango dituzte erantzukizunpeko adierazpen eta aldez aurreko jakinarazpen horiek.

3.- Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan aurreikusita dagoen jendaurrean jartzearen izapidea betetzeko, informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren ohar-tau la elektronikoan argitaratuko da, dagokion arautegian ezarritako ohiko beste bideak erabiltzeaz gain. Era berean, bide hori erabiliko da hala aurreikusita duten gainontzeko prozeduretako informazio-ematearen edo jendaurrean jartzearen izapidea betetzeko.

4.- Prozedura bateko interesdunak ezezagunak direnean, jakinarazpena egiteko lekua edo modua ezagutzen ez denean edo jakinarazteko ahalegina egin arren ez denean lortzen jakinaraztea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren ohar-taula elektronikoaren bidez egingo da jakinarazpena, eta, horrez gain, kasuan kasuko prozedurari aplikatu beharreko arautegian ezartzen diren ohiko bitartekoen bidez.

5.- Hautaketa-prozeduren edo edozein motatako norgehiagoka-prozeduren barruko egintzen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren ohar-taula elektronikoa erabiliko da, eta prozeduraren deialdian adieraziko da hori. Horrez gain, kontratatzailearen profila edo dagokion aldizkari ofiziala ere erabili ahal izango dira.

6.- Laguntzen eta diru-laguntzen arau erregulatzailerik ezarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren ohar-taula elektronikoa argitaratu behar direla laguntza eta diru-laguntzak emateko ebazpenak eta ebazpenen aldaketak.

74. artikulua.- Administrazio Elektronikoa bultzatzeko lankidetzak-tresnak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek sustatuko du lurralde historikoetako administrazioan kasu bakoitzean dagokion erakundearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeekin lankidetzan aritzeko lankidetzak-hitzarmenak egitea eta gainontzeko lankidetzak-tresnak jartzea, Administrazio Elektronikoa bultzatzeko.

Gainera, bultzatuko du hitzarmenak eta lankidetzak-tresnak egitea Europar Batasuneko edozein erakundeekin, estatuko administrazioarekin, autonomia-erkidegoetako eta haien toki-erakundeetako administrazioarekin edo arlo honetan eskumena duten nazioarteko beste erakundeekin.

2.- Administrazio Elektronikoaren Aholku Batzardea eratuko da, arauz. Kide anitzeko organoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean Administrazio Elektronikoaren arloko eskumena duen sailaren mende egongo da, eta bera izango da arlo honetan euskal administrazio publikoen lankidetzak eta parte-hartzerako organo teknikoa.

3.- Aholku Batzardeak zeregin hauek izango ditu:

a) Administrazio publikoek erabiltzen dituzten sistema eta aplikazioen eta herritarrekiko harreman elektronikoen bateragarritasuna eta elkarrengarritasuna lortzea.

b) Administrazio Elektronikoaren garapena eta software publikoaren berrerabilera bultzatzeko jardura-plan eta -programa bateratuak prestatzea.

c) Administrazioarteko lankidetzarako tresnak garatzea. Euskal administrazio publikoek Interneten argitaratutako informazioa bilatzen lagundu behar diete herritarrei tresna horiek eta, horrez gain, nabigazioa eta edukien bilaketa erraztu behar dute, eta eduki jakin batzuk argitaratzen direnean abisua jasotzeko zerbitzuetarako harpidetzak komuna eskaini behar dute (esate

baterako, euskal administrazio publikoen web-dukietarako katalogazio-eredu komunen garapena argitaratzen denean).

d) Leihatila bakarraren garapenerako lagungarriak diren ereduak diseinatzea, euskal administrazio publiko guztietan erabili ahal izan dadin informazio publikora iristeko eskubidea.

e) Administrazio publikoen arteko lankidetzako tresnak garatzea, herritarrei administrazio-informazio argi, eguneratu eta okerrik gabea emateko.

4.- Batzordea eratzeko erregelamenduak ezarriko du batzordearen osaera, haren izaera eta garrantzi handia kontuan hartuz. Landu beharreko gaiengatik interesgarriztat joz gero, kasu bakoitzean komeni diren erakunde, korporazio eta gizarte-eragileak gonbidatu ahal izango dira aholku-batzordearen deliberazioetan parte hartzera.

75. artikulua.- Erakunde pribatuen eta publikoen terminal eta webguneen bidezko irisgarritasuna.

Komunikabideekin, erakunde publikoekin eta, oro har, enpresekin hitzarmenak sinatzea bultzatuko da, horiek terminal informatiko publikoak instalatzeko espazioak jar ditzaten edo herritarrek hitzarmeneko erakundeen terminal, hari gabeko sare eta konexioak erabili ditzaten. Administrazio Elektronikoa herritarrentzat irisgarriagoa izatea da horren guztiaren helburua; alegia, herritarrek gailu berezirik eskuratu behar ez izatea eta administrazioaren egoitzetara joan behar ez izatea.

76. artikulua.- Herritarrekiko interakziorako kanal anitzeko sistema.

1.- Lege honen arabera, hauxe da herritarrekiko interakzioa: harremanetarako espazio eraikitzaile bat sortzeko antolatzen diren prozesu eta bitartekoen multzoa, herritarrei beren eskubideak erabiltzea, beren betebeharrak betetzea eta informaziora iristea ahalbidetzen diena, eta oinarrizkoa dena, alde batetik, gai publikoetan informatuta dauden eta gai horietan parte hartzen duten, aktiboak diren eta erantzukizuna partekatzen duten herritarrak lortzeko eta, bestetik, herritarrentzat irekiagoa eta irisgarriagoa den eta kudeaketa gardenagoa duen administrazio bat erdiesteko.

2.- Herritarrekiko interakzioa gauzatzeko, teknologia, antolamendu, informazio eta langilez osatutako kanal anitzeko sistema bat erabiltzen da. Sistema horren helburua komunikazioa hobetzea da, aurrez aurreko kanalen, telefono bidezko kanalen eta kanal telematikoaren bidez eta Interneten oinarritzen diren bitartekoak erabiliz.

3.- Honako hauek dira herritarrekiko interakzioaren jarduerarekin lortu nahi diren helburuak: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak kudeatzen dituen politika publikoei eta eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazioa eta orientazioa ematea, administrazio-izapideak egiteko erraztasunak ematea herritarrei eta herritarren parte-hartze eta lankidetzarako prozesuen ezarpena bultzatzea.

4.- Informazioaren eta zerbitzu publikoen espezializazioaren eta irisgarritasunerako eta integratzeko bideragarritasunaren arabera, bi maila bereizten dira herritarrekiko interakzioan:

a) Interakzio-maila orokorra: oinarrizko informazio, orientazio eta laguntza eskainiko du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein organotako zerbitzu publikoen politika edo izapideei buruz.

b) Interakzio-maila espezializatua: informazio, orientazio eta laguntza espezializatua, hau da, ezagutza-maila espezializatua eskatzen duena, eskainiko du erakunde arduradun bakoitzaren eskumen-arloko zerbitzu espezifikoaren politika edo izapideei buruz.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean Administrazio Publikoaren arloko eskumena duen saila izango da herritarrekiko interakzioaren ardura bere gain edukiko duen organoa. Bereak izango dira zeregin hauek:

a) Herritarrekiko interakziorako kanal anitzeko sistema diseinatzea eta ezartzea.

Sistema hori eredu batean oinarrituz egingo da, hain zuzen ere honako hauek guztiak teknikoki definituta izango dituen eredu batean oinarrituz: herritarrekiko interakzioan aritzeko moduak eta erabiliko diren komunikazio-tresnak, kudeaketa-sistema (alderdi tekniko, funtzional eta antolamenduzkotik deskribatuko da herritarrekiko interakziorako prozesuen funtzionamendua eta norabidea), eta azken interakzio-prozesuak gauzatzeko erabiliko diren interakzio-kanalak (aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta telematikoa).

b) Zerbitzu bakoitzari dagokion atentzio-maila orokorra eta espezializatua zehaztea, gai bakoitzean eskumena duten sailekin lankidetzan.

c) Interakzio-maila orokorraren zuzeneko kudeaketa egitea, sail eta organo sektorial bakoitzak herritarrentzako bulego fisikoen, telefono bidezko komunikazioen eta Interneten oinarritutako baliabideen bidez emandako informazioan oinarrituz.

d) Kexa, iradokizun eta eskertzen sistemarako irispidea kudeatzea. Interakzio-maila orokorrarekin erantzuten diren gaiak erantzun eta gainontzekoak organo

eskudunetara helaraziko ditu, eta erantzunen epeen eta kalitatearen segimendua egiteko sistemak ezarriko ditu.

e) Informazio eta zerbitzu publikoak edozein modalitate, kanal eta interakzio-mailetan aurkezterakoan homogeneousuna ziurtatzeko irizpide eta estandarrak lantzea eta argitaratzea.

f) Herritarrekiko interakziorako kanal anitzeko sistema osatzen duten kanal eta tresna guztiak koordinatzea eta elkarri lotzea, zerbitzu beteak eta kalitatezkoak emateko eta, bereziki, informazioa zatikatzea edo informazioen arteko kontraesanak ekiditeko eta herritarrei bermatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin komunikatzeko nahi duten bidea aukeratzeko eskubidea. Halaber, lege honetan aipatzen den Gobernu Irekiaren Plataforma koordinatzeaz arduratuko da.

IV. kapitulua.- Sektore publikoaren funtzionamenduko hizkuntzak.

77. artikulua.- Zerbitzu-, harreman- eta lan-hizkuntzak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direnez, bi horiek dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko ohiko lan-hizkuntzak, arautegi aplikagarriak ezartzen duen eran.

2.- Euskararen erabileraren normalizaziorako legeriarekin bat etorritik, legeria horrek hizkuntza-eskubideak aitortzen dizkienez herritarrei, hartu beharreko neurriak hartuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko subjektuek, euskararen erabilera posible izatea berma dadin, bai administrazio desberdinen artean eta administrazio beraren barruan, bai sektore publikoko langileen artean eta bai herritarrei ematen zaizkien zerbitzuetan.

3.- Kapitulu honetan ezarritakoa ez da eragozpen izango Euskadin bizi diren herritarrei atentzio hobea eskaintzeko helburuz beste hizkuntza batzuk erabiltzeko edo zerbitzuak beste hizkuntza batzuetan emateko. Beste hizkuntza batzuk erabiltzeko, kontuan hartu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko aurrekontuek edo langileek beste hizkuntzez duten ezagutzak horretarako bidea ematen duten.

4.- Artikulu honetan ezarritakoa gauzatzeko, aginte publikoek neurriak hartuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileek pixkanaka hizkuntza-gaitasuna lor dezaten.

78. artikulua.- Xedapenetako eta adierazpenetako hizkuntza.

1.- Aurreko artikuluko lehengo paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruan egiten diren dokumentu eta

komunikazio guztiak, eta ez da beharrezkoa izango beste hizkuntza ofizialkidera itzultzea, agiri horiek barruko jardueretakoak direnean edo administrazio beraren barruko edo administrazio desberdinen arteko harremanetakoak nahiz Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen arteko harremanetakoak.

2.- Baina, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esku-hartzea duen egintza orok bai eta administrazio-jakinazpen eta -adierazpenek ere nahitaez bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko dute herritarrentzat badira, salbu eta interesdun pribatuek berariaz aukeratzen badute bietako bat erabiltzea. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetatik datorren ebazpen ofizial orok bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.

3.- Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotik datorren xedapen arau-emaile eta orokor orok euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon behar du, eta euskarazko eta gaztelaniazko testuak, biak, izango dira ofizialak eta benetakoak. Horretarako, bi hizkuntza-bertsioen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatuko dira segurtasun juridikoaren oinarritzko elementu gisa.

79. artikulua.- Espedienteetako hizkuntza.

1.- Pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duten espediente edo prozeduretan, alderdi parte-hartzaileek adostasunez ezartzen duten hizkuntza ofiziala erabiliko dute aginte publikoek.

2.- Ados jartzen ez badira, espediente edo prozedura bultzatu duen pertsonak aukeratzen duen hizkuntza ofiziala erabiliko da. Hala ere, administrazioak antolatu ahalko ditu behar diren mekanismoak prozeduran parte hartzen duten gainerako pertsonak beren hizkuntza-eskubideak baliatu ditzaten, betiere Administrazio publikoarekiko duten harremanetan subjektu aktibo bihurtzen duten zama edo obligaziorik dakarzkioten betebeharririk edo baldintzaririk jarri gabe.

80. artikulua.- Erregistro publikoetako hizkuntza.

1.- Idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren mendeko erregistro publikoetan. Ofiziala ez den hizkuntza batean idatzita dauden dokumentuak itzulpenarekin batera inskribatuko dira, eta bi hizkuntza ofizialetako edozeinetara itzuli ahal izango dira dokumentu horiek, arauz ezartzen den eran.

2.- Dokumentuak erakutsi eta egiaztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialeterako itzulpena bermatuko da.

3.- Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko artxibategi eta erregistroetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria.- Lege honek arautzen duena lurralde historikoetako foru-administrazioei eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikatzea.

1.- Lege honetako I. tituluko II. Kapituluan, 11., 64., 65., 69. eta 70. Artikuluetan, eta V. tituluko IV. kapituluan aurreikusten diren xedapenak aplikatuko zaizkie lurralde historikoetako foru-administrazioei eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei, haien antolamendu, erregimen eta funtzionamendu instituzionaleko arauak xedatzen dutenaren arabera.

Bigarren xedapen gehigarria.- Lege honek arautzen duena Eusko Legebiltzarrari eta haren mendeko erakundeei aplikatzea.

Lege honetan jasotako antolamendu- eta funtzionamendu-printzipioak zein herritarrek botere publikoekiko harremanetan dituzten eskubide eta betebeharrak komunei buruzko gainerako arauak aplikatze aldera, Eusko Legebiltzarra eta haren mendeko erakundeak, Arartekoa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ere sektore publikoaren barruan sartzen dira, Administrazio Zuzenbidearekin lotuta dauden jarduerari dagokienez.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Xedapen iragankorra.- Lege honek arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan dagoeneko badauden fundazioei aplikatzea.

Lege hau indarrean sartzen denean jadanik Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruan dauden fundazioek, hain zuzen ere lege honetan aurreikusitako betebeharrak edo baldintzaren bat betetzen ez dutenek, urtebeteko epea izango dute lege honetara egokitzeko edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak izateari uzteko izapideak egiten hasteko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen III. titulua (*Erakunde-mailako antolaketa*) eta xedapen gehigarri bakarra (*Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren parte-hartzea duten erakundeak*), bai eta lege honi kontra egiten dion maila bereko edo beheragoko beste edozein arau ere.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa.- Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina aldatzea.

Bat.- Aldatu egiten da Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 61. artikulua (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu hori), eta honela idatzita egongo da aurrerantzean:

"1.- Aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak agiri hauek prestatu eta bidaliko dizkio Jaurlaritzari, aurreko artikulua 1. paragrafoan aipatutakoei erantsita:

a) Euskadiko ekonomiaren egoerari buruzko txostena.

b) Aurrekontu orokorraren azalpen-memoria. Indarrean dagoen aurrekontuarekiko aldaketak jaso eta zehatuzko ditu, aldaketarik adierazgarrienak azpimarratuz. Era berean, aurrekontu bakoitzaren eta aurrekontu orokorren lege-proiektuko gainerako neurrien edukia jasoko du.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren aurrekontu bateratua.

d) Indarrean dauden aurrekontuak zenbateraino gauzatu diren adierazten duen txostena, ahal den eguneratuena, eta behin ere ez ekainaren 30a baino lehenagokoa. Txostenak bereziki zehaztu beharko ditu hurrengo urtean gauzatzeko jarraituko diren programak eta ekitaldiaren azkenean zer neurritan gauzatu egongo diren aztertzen duen aurreikuspena, eta, horrez gain, lege honetako 72. artikuluan arautzen diren programa gauzatu gabeen berariazko aipamena egin beharko du.

e) Aurreko urteko aurrekontu orokorraren likidazioa eta, horrekin batera, aurrekontu hori zenbateraino gauzatu den adierazten duen memoria. Memoria horretan, ekitaldi horretan burututako programen azterketa berezia egingo da.

f) Jaurlaritzak egoki irizitako beste edozein informazio.

2.- Halaber, partaide modura Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa daukaten erakundeen zerrenda ere sartu beharko da, informazio gisa".

Bi.- Bosgarren xedapen gehigarria eransten zaio Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginari (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu hori), eta honela idatzita egongo da aurrerantzean:

“1.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak izan gabe sektore publiko horretako erakunderen bati atxikita dauden partzuergoen aurrekontuak Euskadiko aurrekontu orokorrekin batera egongo dira, informazio gisa, aurrekontu-gaietako eskumena duen sailak ezartzen duen eran. Era berean, aurrekontu horien likidazioa ere aurrekontu orokorren likidazioarekin batera egongo da, informazio gisa.

2.- Aurrekontu-gaietako eskumena duen sailaren proposamenez Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen aurrekontu-erregimena aplikatuko zaie aurreko paragrafoan aipatzen diren partzuergoei”.

Azken xedapenetako bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legea aldatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeari laugarren xedapen gehigarria eransten zaio, honela idatzirik:

“Laugarrena.- Atxikitako partzuergoei aplikatu beharreko araubidea.

Eusko Jaurlaritzak ezarriko du zer kontabilitate- eta kontrol-araubide aplikatu behar zaien sektore publiko parte ez diren arren Euskal Autonomia Erkidegoko sektore erakunderen bati atxikita dauden erakundeei, gai horietan eskumena duen sailak proposaturik”.

Azken xedapenetako hirugarrena.- Lege hau indarrean sartzeara.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.